sanmarkos
Mankomunitatea

Aizmendiko zabortegiko isurketa-eremu ez-aktiboen aurrealdeko ezpondak berreskuratu eta ixteko eta behin-behineko zigilatzeko obren Aholkularitza eta Zuzendaritza Teknikoa.

Consultoría y Dirección Técnica de las obras de recuperación y clausura de los taludes frontales y sellado provisional de las zonas de vertido inactivas del vertedero de Aizmendi.

Esp.zk./nº exp.: 13/2025

Baldintza Teknikoen Plegua (BTP) **Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT)**

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xede izango da "Aizmendiko zabortegiko aurrealdeko ezpondak berreskuratu eta ixteko eta Aizmendiko zabortegiko isurketa-eremu ez-aktiboak behin-behinean zigilatzeko proiektua" izeneko eraikuntza-proiektuko obren aholkularitza eta zuzendaritza teknikoko zerbitzuak kontratatzea, proiektuan definitzen diren moduan eta, hala badagokio, Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 1eko Ebazpenean jasotzen diren ekarpenak kontuan hartuta. Ebazpen horren bidez, aldatu eta eraginkor egiten da San Markoseko Mankomunitateari (Aizmendiko zabortegia) emandako ingurumen-baimen integratua, Donostiako (Gipuzkoa) udalerrian hondakin geldo eta ez-arriskutsuen zabortegi-jarduerarako. Ekarpen horiek kontratu-izaera izango dute.

1. OBJETO DEL CONTRATO

Será objeto del contrato la contratación de los servicios de Consultoría y Dirección Técnica de las obras del proyecto constructivo “Proyecto de recuperación y clausura de los taludes frontales y sellado provisional de las zonas de vertido inactivas del vertedero de Aizmendi”, tal y como se definen en el proyecto y considerando las aportaciones que en su caso quedan recogidas en la “Resolución de 1 de julio de 2015 del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se modifica y hace efectiva la autorización ambiental integrada concedida a Mancomunidad de San Marcos (Vertedero de Aizmendi) para la actividad de vertedero de residuos inertes y no peligrosos en el término municipal de Donostia (Gipuzkoa)” los cuales tendrán carácter contractual.

Egiteko obren konplexutasun teknikoa zein, besteak beste, geosintetikoen kontrolari dagokionez Ingurumen Baimen Bateratutik eratortzen diren legezko betebeharrak kontuan izanik, ezinbestekoa da obra horien egikaritze teknikoa eta zuzendaritza kontrolatzeko lankidetza-sistema bat zehaztea.

Dada la complejidad técnica de las obras a acometer, así como las obligaciones legales derivadas de la Autorización Ambiental Integrada en temas de control de geosintéticos, entre otras, se hace imprescindible arbitrar un sistema de colaboración para el control de ejecución técnica y dirección de estas obras.

2. BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

2. PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

2.1. ESLEIPENDUNAK EMATEKO ZERBITZUAK

Zabortegien eraikuntza eta zigilatzean espezializatutako Obrako Zuzendaritza bat izendatzeko premia, hartako eraikitzaileaz eta sustatzaileaz apartekoa, Ingurumen Baimen Bateratuko (IBB) E.1. ataletik eratortzen da.

2.1. SERVICIOS A PRESTAR POR LA ADJUDICATARIA

La necesidad de nombramiento de una Dirección de Obra especializada en la construcción y sellado de vertederos, independiente del constructor y del promotor de la misma deriva del apartado E.1. de la Autorización Ambiental Integrada (AAI).

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

Esleipendunaren jarduna Obren Zuzendaritzaz arduratzea izango da haren garapenari dagozkion gai arrunten gainean, zabortegi arloan aholkularitza oso espezializatuko lana egiteaz gain, kontratazioan zehar sor daitezkeen arazoen inguruan espezialisten diagnosi batekin aholkatze aldera.

La actuación de la Adjudicataria consistirá en el ejercicio de la Dirección de Obra sobre los asuntos ordinarios del desarrollo de la misma, además de una labor de consultoría altamente especializada en materia de vertederos, a fin de asesorar frente a posibles problemas que pudieran surgir en el transcurso de la construcción a través del diagnóstico de especialistas.

Halaber, zabortegiko Ingurumen Baimen Bateratuko *D.1.11* atalean, *Ingurumen Aholkularitza* izenekoan, ezartzen denez, Obra Zuzendaritzak obra amaitu bitartean eta haren berme-epean zehar ingurumen gaietan eta babes-neurrietan zein, oro har, neurri zuzentzailetan kualifikatutako aholkularitza bat izan beharko du. Aipatu gainen inguruan baldintzen pleguak esleitzen dizkion zereginekin lotutako Obra Zuzendaritzaren ebazpenak emateko, aldez aurretik aholkularitza hori burutzen duten adituen txostena helarazi beharko da.

Así mismo, la Autorización Ambiental Integrada del vertedero establece en el apartado *D.1.11. Asesoría Ambiental* que la Dirección de Obra deberá contar hasta la finalización de la obra y durante el periodo de garantía de la misma, con una asesoría cualificada en aspectos ambientales y medidas protectoras y correctoras en general. Las resoluciones de la Dirección de Obra relacionadas con las funciones que le asigne el pliego de condiciones sobre los temas mencionados deberán formularse previo informe de los especialistas que realicen dicha asesoría.

Ingurumen aholkularitzaren zeregin nagusia obra-fasean Ingurumenaren Zaintza Plana zein aplikagarri den arloko legeria eta araudia betetzen dela ziurtatzea izango da. Bestalde, asistentzia horrek Ingurumen Organoak zein Obra Zuzendaritzak eskatutako txosten guztiak eratuko ditu, eta zabortegiaren Ingurumena Zaintzeko Programari dagozkion lanketen balizko eragina eta gainjarpena koordinatuko du, horri dagokionez eskatzen zaizkion datuak emanez eta, bestalde, obrari so interesgarriak direnak jasoz. Horrez gain, obran parte hartzen duten gainerakoek Ingurumen Baimen Bateratuan ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatuko du.

La principal labor de la asesoría medioambiental será la de vigilar el cumplimiento del Plan de Vigilancia Ambiental en fase de obra, así como la legislación y normativa sectorial aplicable. Por su parte, esta asistencia elaborará cuantos informes sean precisados por el Órgano Ambiental y la propia Dirección de Obra, y coordinará la eventual afección y solape de las tareas relativas al Programa de Vigilancia Ambiental del propio vertedero, proporcionando los datos que le sean requeridos al respecto, y por su parte, recabando los que resulten de interés para la obra. Adicionalmente se cerciorará del cumplimiento de los condicionantes establecidos en la Autorización Ambiental Integrada por parte del resto de los participantes en la obra.

Geosistentikoei dagokienez, zabortegia zigilatzeko obra behar bezala garatzeko funtsezkoa, Ingurumen Baimen Bateratuaren *D.2 atalean* zigilatzeko obrak hasi aurretik, Jabetzaren eta eraikitzailearen aparteko enpresa bat izendatu behar da, geosintetikoen instalazioan kalitate-bermea kontrolatzeaz arduratuko dena.

En lo concerniente a los geosintéticos, los cuales constituyen una pieza clave para el correcto desarrollo de la obra de sellado del vertedero, la Autorización Ambiental Integrada establece en el *apartado D.2.* que previamente al inicio de las obras de sellado, se nombre a una empresa independiente de la Propiedad y del constructor, que se encargue del control de garantía de calidad en la instalación de los geosintéticos.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

Kontrol horretaz arduratuko den lantalde teknikoak (QAC) betetzeko funtzioak hurrengo ataletan zehaztuko dira, eta baita eraikuntza-proiektuan bertan ere, eta proiektuko Geosintetikoen Kalitatea Kontrolatzeko Planaren garapen modura laburbildu daitezke.

Las funciones a desempeñar por el equipo técnico al cargo de este control (QAC) se detallan en los apartados siguientes, así como en el propio proyecto constructivo, y pueden resumirse como el desarrollo del Plan de Control de Calidad de Geosintéticos del proyecto.

2.2. ESLEIPENDUNAK BURUTZEKO LANAK

2.2. TRABAJOS A REALIZAR POR LA ADJUDICATARIA

Oro har, asistentzia honek egiteko lanak horrela gauzatuko dira:

Con carácter general las tareas a prestar por esta asistencia se materializarán del siguiente modo:

2.2.1. Harremanak eta bilkurak Administrazioarekin

2.2.1. Contactos y reuniones con la Administración

Esleipendunak harremanak eta bilkurak izango ditu, gutxienez, zazpi (7) egunetik behin Jabetzarekin obrak garatzen diren bitartean agertzen diren arazoak aztertzeko. Halaber, obrak izandako gertaera puntualen berri emango du berehala, baldin eta, modu batera edo bestera, asistentzia ematen duen gairen baten edo ugariren garapen egokia kolokan ipin badaiteke horien ondorioz.

La Adjudicataria mantendrá contactos y reuniones, como mínimo, cada siete (7) días, con la Propiedad para el estudio de los problemas que se presenten en el desarrollo de la obra. Asimismo informará, de manera inmediata, de los sucesos puntuales acontecidos en la obra, que, de alguna manera, puedan comprometer el correcto desarrollo en alguna o varias de las materias en la que presta asistencia.

Esleipendunak bilkura guztietan adostutakoaren idatzia jasoko du eta, topaketa/bisita bakoitzaren inguruko akta idatziko du, Jabetza ordezkatzen duen pertsonak sinatzekoa, eta Kontratuari dagokion dokumentazioaren artxiboan gordeko du.

La Adjudicataria tomará nota de lo acordado en todas las reuniones, y redactará un acta de cada encuentro/visita, a suscribir por la persona representante de la Propiedad, y la conservará en el archivo de la documentación relativa al Contrato.

Modu berean, Mankomunitateak edo eskumeneko beste organismo batzuek obrekin lotuta deitutako bilkura guztietara bertaratu beharko du Esleipendunak, eta bilkura horiei euskarri emateko beharrezkoa den dokumentazioa prestatu beharko du.

De igual modo, la Adjudicataria habrá de asistir a cuantas reuniones con relación con las obras sean convocadas por la Mancomunidad o por otros organismos competentes, debiendo preparar la documentación necesaria que de soporte a dichas reuniones.

2.2.2. Eraikuntza Proiektua berrikustea

2.2.2. Revisión del proyecto constructivo

Lehendabiziko fase batean, Esleipendunak proiektuaren eta egiteko obraren zuinketaren idatzia aztertuko du, eta txosten batean adieraziko ditu dokumentuan hautemandako balizko ez-aipatzeak edo anomaliak edo, obra-fasean, arazo handiagoak ekar ditzaketen bestelako

En una primera fase, la Adjudicataria hará un análisis de la redacción del proyecto y replanteo de la obra a realizar, indicando en un informe las posibles omisiones y anomalías observadas en el documento u otras incoherencias que, en fase de obras, pudieran derivar en problemas

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

inkoherentziak. Gainera, proiektatutako materialen ontasun zein egokitasuna egiaztatu beharko da, eta baita Kontratistak proposatutakoena ere, egindako kalkuluekin eta proiektuko neurketa eta aurrekontuekin batera.

de mayor calado. Además, se deberá comprobar la bondad y adecuación de los materiales proyectados, así como los propuestos por la Contratista, los cálculos realizados, y las mediciones y presupuestos del proyecto.

2.2.3. Obrako Plana berrikustea

Txosten bat aurkeztuko da Esleipendunak Jabetzari aurkezteko Lanen Programen inguruan. Bertan *Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzeko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko* 144. artikuluan adierazten dena bete beharko da. Txosten hori Administrazioak jaso beharko du obren Kontratistak dagokion Obrako Plana helarazi ondotik. Horrela, plan horretan aldaketaren bat egin beharko balitz, obrako Jabetzako Plan hori onartu aurretik gauza dadin.

2.2.3. Revisión del Plan de obra

Se presentará un informe sobre los Programas de Trabajos que la Adjudicataria presente a la Propiedad que habrá de observar el contenido prescrito en el art. 144 del *Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas*. Este informe deberá ser recibido por la Administración tras la entrega del correspondiente Plan de Obra por parte de la Contratista de las obras, de modo que, si dicho plan requiriese algún tipo de cambio o modificación, ésta sea materializada con carácter previo a la aprobación de dicho Plan por la Propiedad de la obra.

2.2.4. Hondakinak Kudeatzeko Plana berrikustea

Hondakinak Kudeatzeko Planari buruzko txosten bat aurkeztuko da, obrako Kontratistak *Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuarekin* bat etorriz idatzi beharko duena. Txosten horretan, indarreko legeriarekin, proiektatutako obren errealitatearekin eta proiektuan jasotzen den Hondakinak Kudeatzeko Azterlanarekin berarekin bat datorren egiaztatuko da. Txosten horretan Planaren aldeko edo kontrako txostena emango da, obrako Esleipendunak txosteneko manuak betetzeko beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan.

2.2.4. Revisión del Plan de Gestión de Residuos

Se presentará un informe sobre el Plan de Gestión de Residuos que la Contratista de la obra debe redactar acorde al *Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición*. En dicho informe, se comprobará su adecuación a la legislación vigente, así como a la realidad de las obras proyectadas y al propio Estudio de Gestión de Residuos contenido en el proyecto. Dicho informe informará favorable o desfavorablemente acerca del Plan, de modo que, la Adjudicataria de la obra realice cuantas modificaciones resulten necesarias para dar cumplimiento a las prescripciones del informe.

2.2.5. Kalitatearen Kontrolerako Plana obran garatzea

Esleipendunak Obrako Kalitatearen Kontrolerako Plan Orokorrari zein geosintetikoen Kalitatearen Kontrolerako Plan espezifikoari, biak Eraikuntza-

2.2.5. Desarrollo del Plan de Control de Calidad en obra

La Adjudicataria revisará y, en su caso, propondrá las modificaciones pertinentes al Plan de Control de Calidad General de la Obra, así como al Plan de Control de Calidad

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

proiektuan jasoak, dagozkion aldaketak berrikusi eta, hala badagokio, proposatuko ditu.

Kalitatearen Kontrolerako Plan Orokorraren kasuan (obraren kontura garatzekoa), materialen harrera gainbegiratuko du eta esleipendunak hala erabakitako partidetan zein Obra Zuzendaritzak eskatutako beste edozeinetan, egiteko entseguak koordinatuko ditu.

Asistentzia kontratatutako laborategiak egindako entseguen emaitzak berehala jasotzen ahaleginduko da, horiek aztertuz eta dagozkion ondorioaz atereaz, Obra Zuzendaritzari horien berri emanez berehala.

Geosintetikoen Kalitatearen Kontrolerako Planaren kasuan (kontratu honen kontura garatzekoa), esleipendunak, laborategi espezializatu baten lankidetzarekin, proiektuan agindutako proba eta entseguak garatuko ditu. Halaber, aurreko ataletan zehazten den laneko zein obra amaierako dokumentazioa prestatuko du.

2.2.6. Ingurumena Zaintzeko Plana obran berrikustea

Esleipendunak, aurreko kasuetan bezala, obrak egikaritzen diren bitartean garatzeko Ingurumena Zaintzeko Plana behar bezala idatz dadin kolaboratuko du. Plan hori obrako Kontratistak aurkeztuko du proiektuko Ingurumena Zaintzeko Programaren garapenean.

Azterketa sakon baten bidez, Asistentziak dokumentu horrek derrigorrez betetzekoa den ingurumen legeria betetzen duela ziurtatuko du eta, behin obra-fasean, koordinazioaz arduratuko da eraikuntza-lanak garatzen diren bitartean behar bezala txerta dadin.

Bestalde, eta Ingurumen Baimen Bateratuko *D.1.12* atalean, *Lanen Programaren Diseinua* izenekoan adierazitakoarekin bat etorriz,

específico de los geosintéticos, ambos contenidos en el proyecto constructivo.

En el caso del Plan de Control de Calidad General (a desarrollar a cargo de la obra), supervisará la recepción de los materiales y coordinará los ensayos a realizar por la Adjudicataria en aquellas partidas en las que así se haya determinado, así como en aquellas otras en las que así sea requerido por la Dirección de las Obras.

La Asistencia procurará la inmediata recepción de los resultados de los ensayos practicados por parte del laboratorio contratado, analizando los mismos y extrayendo las conclusiones pertinentes, de las que dará cuenta inmediata Dirección de la Obra.

En el caso del Plan de Control de Calidad de los Geosintéticos (a desarrollar a cargo del presente contrato), la Adjudicataria desarrollará, en colaboración con un laboratorio especializado, el conjunto de pruebas y ensayos prescritos por el proyecto. Asimismo, elaborará la documentación de trabajo y fin de obra que se especifica en los apartados posteriores.

2.2.6. Revisión del Plan de Vigilancia Ambiental en obra

La Adjudicataria colaborará de igual modo que en los casos anteriores, en la correcta redacción del Plan de Vigilancia Ambiental a desarrollar durante la ejecución de las obras, plan que presentará la Contratista de la obra en desarrollo del Programa de Vigilancia Ambiental del proyecto.

Mediante un exhaustivo análisis, la Asistencia se encargará de que dicho documento cumpla con toda la legislación ambiental que resulte de obligado cumplimiento, y, una vez en fase de obra, coordinará su correcta implantación durante el desarrollo de los trabajos constructivos.

Por su parte, y según lo indicado en el apartado *D.1.12. Diseño del Programa de Trabajos* de la Autorización Ambiental Integrada, la Asesoria

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

Ingurumen Aholkularitzak txosten bat igorri beharko du, Obra Zuzendariak onartzekoa, eduki honekin:

- Kontratistaren eta hondakinak aldi baterako gordetzeko instalazio-eremuen lokalizazioari eta ezaugarriei buruzko xehetasunak.
- Intereseko landaredia eremuen seinaleztapena xehetasunezko kartografian, zuzeneko okupazio bat aurreikusten ez delarik.
- Solido esekien atxikipenerako gailuen xehetasunak eta lokalizazioa.
- Ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta lokalizazioa.

Ambiental deberá emitir un informe, a aprobar por el Director de Obra, con el siguiente contenido:

- Detalles sobre la localización y características de las áreas de instalaciones del Contratista y almacenamiento temporal de residuos.
- Señalización en cartografía de detalle de las zonas de vegetación de interés, donde no se prevea una ocupación directa.
- Detalles y localización de los dispositivos de retención de sólidos en suspensión.
- Detalles y localización de los dispositivos de limpieza de vehículos.

2.2.7. Obraren egiaztapen topografiko eta geometrikoa

Esleipenduna laguntzarako Oinarrizko Sarearen egiaztapen materialera eta, beharrezkoa balitz, haren birjarpenera, obrako zuinketara eta proiektuan haren geometriari dagokionez egoeraren egiaztapen orokorrera bertaratuko da, proiektua lekuan bertan definitu ahal izan dadin erabat. Lan horiek, Plegu honetan barneratzen diren gainerako guztiak bezalaxe, sor daitezkeen aldaketa edo obra osagarri bakoitzerako egingo dira era berean.

2.2.7. Comprobación topográfica y geométrica de la obra

La Adjudicataria asistirá a la comprobación material de la red básica de apoyo y su reposición en caso necesario, replanteo de las obras y comprobación general de los supuestos del proyecto en cuanto a su geometría, de tal forma que el proyecto pueda ser totalmente definido sobre el terreno. Estos trabajos, al igual que todos los demás contemplados en este Pliego, se realizarán asimismo para cada una de las posibles modificaciones u obras complementarias que puedan surgir.

Esleipendunak, proiektuaren bideragarritasunarekin bat etorriz, eta Obren Zuzendaritza modura, Zuinketa Egiaztatzeko Akta sinatuko du, obrak egiteko epeari hasiera emango diona.

La Adjudicataria, en conformidad con la viabilidad del proyecto, y en calidad de Dirección de las Obras, firmará el Acta de Comprobación de Replanteo, que marcará el inicio del plazo de las obras.

Topografia-lanen barruan, Asistentziak zeregin hauek burutuko ditu:

- Obren xede den eremuaren egiazko egoera jasotzea.
- Obraren kontrol geometrikoa (sestrak, kotak, koordenatuak) eta ziurtatzeko partiden neurketaren egiaztapena.
- Sare eta zerbitzuen inbentarioa.
- Obren azken egoera jasotzea.
- Obrarekin lotutako proposamen tekniko ezberdinak irudikatzera bideratutako bestelako jasotzeak.

Dentro de los trabajos de índole topográfica, la Asistencia realizará las siguientes tareas:

- Levantamiento del estado real de la zona objeto de las obras.
- Control geométrico de la obra (rasantes, cotas, coordenadas) y verificación de la medición de las partidas a certificar.
- Inventario de redes y servicios.
- Levantamiento del estado final de las obras.
- Otros levantamientos destinados a la representación de diferentes propuestas técnicas relacionadas con la obra.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

2.2.8. Aldizkako txostenak bidaltzea

Jarraian, hasiera batean, Asistentziak kontratuak irauten duen bitartean bidaliko dituen txostenak zehazten dira:

- Neurketak: Zerrenda balioetsia

Igarotako hilean zehar egikaritutako unitate bakoitzaren neurketak zehaztuko dira, hala badagokio, dagokion hilean egikaritu arren, zehaztapen teknikoak ez betetzeagatik, egikaritzean akatsak egoteagatik edo proposamena funtsatzen duten bestelako arrazoiengatik Zerrenda Balioetsian sartu beharko ez liratekeen zatiak adierazita. Halaber, beste hil batzuetakoak izanik, aurreko Zerrenda Balioetsietan sartu ez diren eta dagokion hilean sartzekoak diren neurketak ere zehaztuko dira. Aurrez adierazitakoa Zerrenda Balioetsiaren proposamen batean laburbilduko da.

Orobat, prezio kontrajarriak edo sor daitezkeen prezio berriak proposatuko dira, horiek eztabaidatu eta Esleipendunarekin adosteko.

Hileroko balioespenarekin batera, beharrezkoa balitz, ziurtatzea proposatutako elementu eraikien neurketa partzialak ulertzeko lagungarri diren planoak gaineratuko dira.

- Hileroko txostena

Txosten hau Esleipendunak sinatu beharko du eta Jabetzari helarazi beharko zaio hil bakoitzaren hilaren 10a baino lehen obrak egiteko epearen barruan. Bertan, arlo bakoitzerako (teknikoa, ingurumena, kalitate-kontrola eta geosintetikoak) igaro den hilean izandako alderdi esanguratsuenak zehaztuko dira. Txosten horri kalitate-kontroletik, eraikuntza-proiektuaren aldaketetatik, obrako gorabeheretatik, jasotako bisita eta ikuskapenetatik eta, oro har, obren garapenetatik eratortzen den dokumentazio oro erantsiko zaio. Txostenaren atal bakoitza arlo bakoitzean arduradun den teknikoak sinatuko du.

2.2.8. Emisión de informes periódicos

Seguidamente se detallan los informes que, a priori, se emitirán por parte de la Asistencia durante el transcurso del contrato:

- Mediciones: Relación valorada

Se detallarán las mediciones de cada unidad ejecutada durante el mes vencido, indicando, si es el caso, aquellas partes que, aunque ejecutadas en el mes en cuestión, no se debieran incluir en la Relación Valorada por incumplimiento de las especificaciones técnicas, deficiencias en la ejecución u otras causas que fundamenten la propuesta. Se especificarán también las mediciones que, procedentes de otros meses, no hubieran sido incluidas en anteriores Relaciones Valoradas y procediese su inclusión en el mes en curso. Lo anteriormente indicado se resumirá en una propuesta de Relación Valorada.

Asimismo, se propondrán los precios contradictorios o nuevos precios que eventualmente pudieran surgir, para su discusión y acuerdo con la Adjudicataria.

La valoración mensual se acompañará, si fuera preciso, de los planos que ayuden a comprender las mediciones parciales de elementos construidos que se propone certificar.

- Informe mensual

Este informe deberá ser suscrito por la Adjudicataria y entregado a la Propiedad antes del día 10 de cada mes dentro del plazo de obra. En él se especificarán, para cada materia (técnica, ambiental. control de calidad y geosintéticos) las cuestiones más relevantes acontecidas durante el mes vencido. A dicho informe se anexará cuanta documentación se derive del control de calidad, de las modificaciones del proyecto constructivo, de las incidencias de la obra, de las visitas e inspecciones recibidas, y, con carácter general, del desarrollo de las obras. Cada parte del

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

informe será firmada por el técnico responsable de cada materia.

Hileroko txosten horri bertan ageri den informazioa osatzeko egoki den dokumentazio grafikoa gaineratuko zaio. Txostenak bilkuretako aktak eta gainerako dokumentazio loteslea artxibatzeko obrako erregistroaren zati izango dira.

Este informe mensual se acompañará de la documentación gráfica que resulte apropiada para complementar la información allí expuesta. Los informes formarán parte del registro de obra en el que se archiven las actas de reuniones y demás documentación vinculante.

Halaber, ordura arte bidalitako obra-ziurtagirien zenbatekoen zerrenda banakatu bat barneratuko da, aurrekontuarekiko kapitulu bakoitzean izandako balizko desbideratzeen inguruko estimazio batekin batera.

Asimismo, se incluirá una relación de los importes desglosados de las certificaciones de obras emitidas hasta la fecha, además de una estimación de las posibles desviaciones de cada capítulo con respecto al presupuesto.

Hileroko txostena aldizkako bilkura bakoitzean eta jabetza eta, hala balegokio, gainerako organismoen bisita bakoitzean jasotako Akten arabera eratuko da.

El informe mensual se configurará en base a las Actas levantadas en todas y cada una de las reuniones periódicas y visitas de la propiedad y demás organismos, si fuera el caso.

- Azken txostena / Obra Amaieraren Ziurtagiria

- Informe final / Certificado de Fin de Obra

Ingurumen organoaren betekizuna da obra behar bezala egikaritzea egiaztatzeko dokumentazioa helaraztea, bereziki, ingurumen arloan eta geosintetikoen kalitate-bermeari dagokionez. Azken Txostenean aipatu dokumentazioa jasoko da eta Jabetzari helarazi beharko zaio obrak amaitu eta bi (2) asteko epean, horri dagokionez Ingurumen Baimen Bateratuan ezarritako eskakizunak betetze aldera.

Es requisito del órgano Ambiental la entrega de documentación acreditativa de la correcta ejecución de la obra, en especial, en materia ambiental y de garantía de calidad de los geosintéticos. El Informe Final, que reunirá la documentación mencionada, deberá ser entregado a la Propiedad en un plazo de dos (2) semanas desde la fecha de finalización de las obras, a fin de poder cumplir con los requerimientos de la Autorización Ambiental Integrada a este respecto.

Txosten horretako edukia Ingurumen Baimen Bateratuko D.1.14, D.2.3 y E.2.d) y e) ataletan zehaztutakoarekin bat etorriko da.

El contenido de este informe se ajustará a lo especificado en los apartados D.1.14, D.2.3 y E.2.d) y e) de la Autorización Ambiental Integrada.

2.2.9. Aldizkakoak ez diren txostenak bidaltzea

Aurreko atalean adierazitako dokumentuak alde batera utzita, hemen Asistentziak idaztea eska dezakeen beste zenbait txosten zerrendatzen dira, zorroztasun handiegirik gabe.

2.2.9. Emisión de informes no periódicos

Al margen de los documentos señalados en el apartado anterior, aquí se enumeran de manera no exhaustiva, otros posibles informes cuya redacción pudiera ser requerida a la Asistencia.

- Anomaliei buruzko txostenak

- Informes sobre anomalías

Esleipendunak eraikuntzan zehar ikusten diren anomaliei buruzko txostenak idatziko ditu berehala. Bestalde, txosten horretan aurrez

La Adjudicataria redactará de manera inmediata informes relativos a las anomalías que se observen durante la construcción. Por su parte,

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

deskribatutako egoerak artezteko neurri zuzentzaileen proposamena jasoko da.

en dicho informe se incluirá la propuesta de las medidas correctoras para enmendar las situaciones anteriormente descritas.

Lanak eten edo laneko erritmoa modu nabarian jaitsiz gero, Esleipendunak atzerapen horren balizko arrazoiak eta ondorioak adieraziko ditu dagokion txostenean, Kontratisten edo hirugarrenen erantzukizuna erabakiz. Modu berean jardungo da, obrak egikaritzearen ondorioz, hirugarrenei eragindako kalteen kasuan edo ustekabeko bestelako gertakaririk izatekotan.

En caso de paralización o descenso acusado del ritmo de trabajo, la Adjudicataria indicará, en el informe correspondiente, las posibles causas y las consecuencias de dicho retardo, dilucidando la responsabilidad de la Contratista o de terceros. Análogamente procederá en caso de daños a terceros u otra contingencia imprevista, con motivo de la ejecución de las obras.

- Aldaketei buruzko txostenak
  - Informes sobre modificaciones

Jabetzak hala eskatuta, oinarrizko materialen mota, kalitate eta horniduran izandako aldaketei buruzko proposamenak idatziko dira. Halaber, obran zehazteko granulometriak proposatuko dira, Baldintza Teknikoen Pleguetan jasotzen ez diren material edo eraikuntza-prozedurei buruzko zehaztapenekin batera. Era berean jardungo da definizioaren arabera obra-fasean zehaztu beharreko xehetasunekin.

A petición de la Propiedad se redactarán propuestas sobre modificaciones en el tipo, calidad y suministro de los materiales básicos. Se propondrán asimismo las granulometrías a definir en obra, así como aquellas especificaciones referentes a los materiales o a los procedimientos constructivos no contenidos en los Pliegos de Prescripciones Técnicas. De igual manera se procederá con aquellos detalles en cuya definición ya estuviera previsto que fueran definidos en fase de obra.

Asistentziak Prezio Kontrajarriak proposatuko ditu hala badagokio, eta txosten bat prestatuko da Kontratistarekin eztabaidatzeko.

La Asistencia propondrá los Precios Contradictorios en su caso, y se preparará un informe para su discusión con la Contratista.

Proiektuan aldaketa adierazgarriak egitea dakarren edozein aldaketa jakinarazi egin beharko da eta, hala badagokio, Ingurumen Organoak onartu beharko du. Asistentzia izango da aldaketa horien irismena zehazteko dokumentuak idazteaz eta aldaketa horiek behin obrak amaitutako Ingurumen Organoari helarazteko Azken Txostenean erregistratzearen arduraduna.

Cualquier modificación del proyecto que conlleve cambios sustanciales, habrá de ser comunicada, y en su caso, aprobada por el Órgano Ambiental. La Asistencia será la encargada de redactar los documentos que definan el alcance de dichas modificaciones, y de registrar tales cambios en el Informe Final que se aporte al Órgano Ambiental una vez concluidas las obras.

- Ezohiko txostenak
  - Informes extraordinarios

Esleipendunak Ingurumen Organoak eskatzen dizkion txosten edo dokumentuak idatziko ditu, *Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea* aplikatuz lurzoruaren kalitatea mantentze aldera; era berean, ingurumenarekin lotuta, eskumeneko Administrazioak eskatzen dion eta plegu honetan

La Adjudicataria redactará los informes o documentos que sean requeridos por el Órgano Ambiental en orden a preservar la calidad del suelo en aplicación de la *Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo*, así como cualquier otro documento de índole medioambiental requerido por la Administración competente que

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

berariaz jasota geratzen ez den beste edozein dokumentu idatziko du.

no quede expresamente recogido en este pliego.

2.3. ZERBITZUA EMATEKO JARDUNA

Kontratu honen xede den Asistentzia lan-eremu hauetan egituratzen da:

- Obra Zuzendaritza / Laguntza Teknikoa
- Ingurumen Laguntza
- Kalitate Orokorraren Kontrola
- Geosintetikoen Kalitate Bermearen Kontrola

Jarraian aurreko ataletan deskribatutako lan-eremu bakoitzerako Asistentziaren jarduketa deskribatzen da.

2.3. OPERATIVA DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO

La Asistencia objeto de este contrato se estructura en las siguientes áreas de trabajo:

- Dirección de Obra / Asistencia Técnica
- Asistencia Ambiental
- Control de la Calidad General
- Control de Garantía de Calidad de los Geosintéticos

Seguidamente se describe la operativa de actuación de la Asistencia para cada una de las áreas de trabajo descritas en los apartados anteriores.

2.3.1. Laguntza Teknikoa. Obra Zuzendaritza

Esleipendunak Obren Zuzendaritzarako behar besteko titulazio eta gaitasun teknikoa duen pertsona bat proposatuko du. Pertsona hori dagokion organoak izendatuko du eta izendapen hori Ingurumen Organora igorriko da, Ingurumen Baimen Bateratuan eskatzen den eran.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 62.2 artikuluan zehazten denarekin bat etorriz, Obra Zuzendaritza beregain hartzen duen pertsonak obretako kontratuaren arduradun modura jardungo du ondorio guztietarako.

Hauek izango dira, gutxienez, esleipendunak garatzeko lanak:

Obrak hasi aurretik egiteko jarduerak:

- Mankomunitateari laguntza ematea obrak egikaritzeko eskaintzak hautatzeko prozesuan, hala badagokio, Kontratazio Mahaiak eskatzen dituen txosten teknikoak prestatuz. Kontratu honen esleipendunak eta zerbitzu hori San Markoko Mankomunitateari emateko harekin kolaboratzen duten enpresa edo

2.3.1. Asistencia Técnica. Dirección de Obra

La Adjudicataria propondrá a una persona con titulación y capacidad técnica suficiente para la Dirección de las obras. Esta será nombrada por el órgano correspondiente y su nombramiento será remitido al Órgano Ambiental tal y como exige la Autorización Ambiental Integrada.

De acuerdo con lo especificado en el artículo 62.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del sector Público, la persona que ejerza la Dirección de Obra actuará como responsable del contrato de obras a todos los efectos.

El trabajo a desarrollar por el adjudicatario comprenderá, cuando menos:

Actividades a realizar previo al inicio de las obras:

- Asistencia a la Mancomunidad en el proceso de selección de ofertas para la ejecución de las obras, elaborando en su caso, los informes técnicos que la Mesa de Contratación le requiera. El adjudicatario de este contrato y las empresas o profesionales que colaboren con el mismo en la

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

profesionalek ezingo dute kolaboratu enpresa lizitatzaileekin eta obren kontratista esleipendunekin, eta ezingo dute haien aldeko aholkatzeko lanik egin, ez eskaintzak prestatzean, ezta obrak egikaritzen direnean.

prestación de este servicio a la Mancomunidad de San Marcos, no podrán colaborar ni realizar labores de asesoría a las empresas licitadoras ni al contratista adjudicatario de las obras en la preparación de las ofertas ni durante la ejecución de las obras.

- Proiektua erabat ezagutzea. Esleipendunak Proiektuaren eta zuzentzeko Obren xehetasunezko azterlan bat egingo du.

- Pleno reconocimiento del Proyecto. El adjudicatario realizará un estudio detallado del Proyecto y de las Obras a dirigir.

- Asistentzia eman eta Zuinketa Egiaztatzeko Akta sinatzea, eta esleipen hau formalizatzen denetik hastapen horretara bitartean egiteko lanak burutzea, obrak hasi aurrekoak.

- La asistencia y firma del Acta de Comprobación de Replanteo, así como la realización de los trabajos previos al inicio de las obras que medien entre la formalización de la presente adjudicación y dicho inicio.

- Obren esleipendun den kontratistarekin eta Mankomunitatearekin batera, Obrako Plana onartu edo doitzea.

- Aprobación o ajuste, junto con el contratista adjudicatario de las obras y la Mancomunidad, del Plan de Obra.

- Egiteko kontrolak programatzea. Kontrol geometriko bat ezarriko da, kualitatiboa eta kuantitatiboa, obrako planari jarraikiz, obrako unitate bakoitzaren eta horiek osatzen dituzten material guztien kontrolean jarraitzeko sistematika azalduta, mankomunitateari aurkeztuko zaiona hark gainbegiratu eta, hala badagokio, onar dezan.

- Programación de los controles a realizar. Se establecerá un control geométrico, cualitativo y cuantitativo de acuerdo con el plan de obra, con una exposición de la sistemática a seguir en el control de todas y cada una de las unidades de obra y sus materiales constitutivos el cual será presentado a la mancomunidad para su supervisión y su aprobación si procede.

Obrak egikaritzen diren bitartean egiteko jarduerak:

Actividades a realizar durante la ejecución de las obras:

- Obrak pleguak, onartutako proiektua, behar bezala onartutako aldaketak eta Ingurumen Baimen Bateratua zorroztasun osoz betez egikaritu daitezela bermatzea.

- Garantizar la ejecución de las obras con estricta sujeción a los pliegos, al proyecto aprobado, a las modificaciones debidamente autorizadas y a la Autorización Ambiental Integrada.

- Obren Esleipendunak Kontratuko baldintzak betetzen dituela (eskaintza loteslea) gainbegiratu eta kontrolatzea.

- Supervisión y control del cumplimiento de las condiciones del Contrato (oferta vinculante) por parte de la Adjudicataria de las Obras.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

o Kontratuko administrazio-baldintzak kontrolatzea, dagozkion aldaketak, epe-luzapenak edo zehapenak behar beste denboraz proposatuz.	o Control de las condiciones administrativas del Contrato, proponiendo las modificaciones, ampliaciones de plazo o penalizaciones pertinentes con suficiente antelación.
o Obren egikaritzea modu jarraituan kontrolatu eta zuzentzea, horien kalitatea ziurtatuz.	o Control y dirección continúa de la ejecución de las obras, asegurando la calidad de las mismas.
o Obren egikaritzea esleitu zaion kontratistarekin koordinazioa egitea. Obrara maiztasun oso handiz egiteko aldizkako bisitak egitea, oro har eta gutxienez, astean behin Obra Zuzendariaren kasuan, eta edozein kasutan, presentzia etengabea izanik fase kritikoetan, esleipendunak, koordinazioa eta jarraipena burutzeko, kontratuan erabilgarri jarri beharreko beste langile batzuen presentzia fisiko derrigorraren kalterik gabe. Esleipendunak bilkura bakoitzean adostutakoaren akta bat idatziko du, eta baita obrara egindako bisitena ere. Akta horiek obrari dagokion dokumentazioan jasoko dira.	o Coordinación con el contratista adjudicatario de la ejecución de las obras. Las visitas periódicas a realizar de manera muy asidua a la obra, que serán, con carácter general y como mínimo, de una vez por semana para el Director de Obra, y en cualquier caso con presencia constante en fases críticas, sin perjuicio de la presencia física que sea necesaria de otro personal de coordinación y seguimiento que el adjudicatario deba poner a disposición del contrato. El adjudicatario redactará un acta de lo acordado en cada reunión así como de las visitas a obra que se conservarán en la documentación relativa a la obra.
o Kontratista ezberdinekin koordinazioa burutzea	o Coordinación con los diferentes contratistas.
o Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari berez dagozkion lanak burutzea, Aginduen Liburuan islatzen diren argibideak, ahozkoak zein idatzizkoak, emanez, proiektuko dokumentuak behar bezala interpretatzeko, egikaritzea zein obran jartzea egoki burutzeko eta eraikuntza-elementuak zein instalazioak erabilgarri egin daitezen. Aginduen Liburuaz gain, Intzidentzien Liburu bat osatuko da. Hor obrako edozein alderditan geratzen diren gorabehera nabarmenenak islatuko dira egunero.	o La realización de los trabajos propios de la Dirección Facultativa de Obra, dando instrucciones, tanto verbales como escritas, reflejadas en el Libro de Órdenes, para la adecuada interpretación de los documentos de proyecto, y la correcta ejecución, puesta en obra, y disposición, tanto de los elementos constructivos como de las instalaciones. Además del Libro de Órdenes se llevará un Libro de Incidencias en el que se reflejarán diariamente las incidencias más destacadas en cualquiera de los aspectos de la obra.
o Kontratistaren bitarteko pertsonal eta materialek, zein horiek kontrolatzeko neurri eta prozedurek Proiektuko edo Kontratuko zehaztapenetan eskatzen den kalitatea bermatzen dutela egiaztatzea.	o Comprobar que los medios personales y materiales del contratista, así como sus medidas de control y procedimientos garantizan la calidad exigida en las especificaciones del Proyecto o del Contrato.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Laneko Programa eta, horrenbestez, egikaritze-epea betetzen dela bermatzea, desbideratzeak (arrazoiak) eta horiek zer neurritan izan duten eragina adieraziz eta, aldi berean, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak proposatuz.

- Garantizar el cumplimiento del Programa de Trabajos y por tanto el plazo de ejecución, indicando desviaciones (causas) y su grado de incidencia y, proponiendo a su vez las medidas correctoras necesarias.

- Mankomunitateak obren egikaritzeen gaineko jarraipen egoki baterako deitzen dituen bilkura eta lansaioetara bertaratzea.

- La asistencia a las reuniones y sesiones de trabajo que sean convocadas por la Mancomunidad para un correcto seguimiento de la ejecución de las obras.

- Obrako Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko da bisiten edukia eta emaitzak islatzeko aktak idazteaz, eta baita egiten diren bilkura eta lansaioetakoak idazteaz ere.

- La Dirección Facultativa de la obra será la encargada de redactar las actas que reflejen el contenido y resultado de las visitas, así como de las reuniones y sesiones de trabajo que se realicen.

- Obren Kalitatearen Kontrolerako Plan Orokorra gainbegiratu eta betetzea, Kalitate Kontrolerako Liburua prestatzea eta obrak amaitzean Kalitate Kontrolaren Ziurtagiria igortzea barne. Geosintetikoen Kalitatearen gaineko Kontrola aparte gainbegiratu da.

- La supervisión y cumplimiento del Plan de Control de Calidad General de las obras, incluida la preparación del Libro de Control de Calidad y la emisión del Certificado de Control de Calidad al término de las obras. El Control de Calidad de Geosintéticos será objeto de supervisión específica.

- Mankomunitateari eraikuntzaren eta ekonomiaren alderditik obren nondik norakoen berri emateko hileroko txostenak idaztea, eta hileroko ziurtagiriak igortzea obrara. Jabetzak eskatzen dituen aurreikuspen edo balantze ekonomikoko txostenak prestatzea.

- La redacción de informes mensuales a la Mancomunidad sobre la marcha constructiva y económica de la obra, así como la expedición de certificaciones mensuales a origen de obra. Elaboración de cuantos informes de previsión o balance económico sean solicitados por parte de la Propiedad.

- Gaizki egikaritutako partida eta unitateen ondoriozko zehazpenak ezartzea edo horiek ez ordaintzea proposatzea, hala gertatuz gero, planteamendu horiek justifikatuz.

- Propuestas de imposición de penalizaciones o de impago de partidas y unidades mal ejecutadas, si fuese el caso, justificando tales planteamientos.

- Obrekin lotutako beste edozein alderdiren inguruan Mankomunitateak eskatzen dituen bestelako txosten osagarriak idaztea.

- La redacción de aquellos otros informes complementarios que, sobre cualesquiera otros aspectos relacionados con las obras sean requeridos por la Mancomunidad.

- Ingurumen organoak edo Udalek eskatuta, prentsara informatzeko edo San Markoko Mankomunitateko ordezkariek obrak egindako unean-uneko bisiten ondorioz,

- Preparación de cuanta información escrita y/o gráfica respecto a la marcha de las obras sea requerida, bien a petición del órgano Ambiental, de los

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

obren nondik norakoei buruz eskatzen den informazio idatzi edota grafikoa prestatzea.

Ayuntamientos, para información a la prensa, o para eventuales visitas a la obra realizadas por representantes de la Mancomunidad de San Marcos.

- Eraikuntza-prozesuari buruzko dokumentazioa obrako prozesuaren argazkiekin, ezkutuan geratu behar diren zatietan bereziki erreparatuz. Argazki horiek, behar bezala datatu eta identifikatuta, hileroko txostenetara gaineratuko dira.

- Documentación del proceso constructivo mediante fotografías del proceso de obra con especial atención a las partes que han de quedar ocultas. Estas fotografías, debidamente fechadas e identificadas, se incorporarán a los informes mensuales.

- Pleguetan Obra Zuzendaritzaren irizpidearen baitan uzten diren alderdi teknikoen gaineko irtenbideak proposatzea, eta baita planoak interpretatzearen, materialen baldintzen eta obrako unitateak egikaritzeko baldintzen ondorioz sor daitezkeenekikoak ere, betiere, horiek Kontratuko baldintzak aldatzea ekartzen ez badute.

- Proposición de soluciones en aquellos aspectos técnicos que los Pliegos dejan a criterio de la Dirección de obra, así como respecto a aquellos que puedan surgir en cuanto a la interpretación de planos, condiciones de los materiales y de ejecución de unidades de obra, siempre que no impliquen modificaciones de las condiciones del Contrato.

- Hala badagokio, obrak egikaritzetik eratorrita proiektuetan egiteko doikuntzei buruzko dokumentazioa idaztea. Kontratuaren barruan sartzen direla ulertzen da proiektuetan edo bestelako dokumentu teknikoetan beharrezkoak diren aldaketak, Mankomunitateak emandako argibideetatik eratortzen direnak zein beste Administrazio batzuekin administrazio-lizentzia, -baimen edo –onespenak izapidetzearen ondoriozkoak. Esleipenduna izango da, Mankomunitatearekin batera, hartutako irtenbideak eskumeneko organoaren aurrean defendatuko dituena.

- La redacción, en su caso, de la documentación correspondiente a los ajustes de proyecto derivados de la ejecución de las obras. Se consideran incluidas dentro del contrato de las modificaciones que sean necesarias de los proyectos u otros documentos técnicos, ya se deriven de instrucciones de la Mancomunidad, como de la tramitación con otras Administraciones de licencias, permisos o autorizaciones administrativas. Será el adjudicatario, junto con la Mancomunidad, quien defienda ante el órgano competente las soluciones adoptadas.

- Obrak zabortegian burutzen den jarduerarekin koordinatzea gainbegiratu eta horren gaineko zuzendaritza beregain hartzea. Horri dagokionez, eta Mankomunitatearen jarraibideen arabera, obrak egikaritzeko fase bakoitzean zehar bi jarduerak Koordinatzeko Plana behar bezala gauzatzeaz arduratuko da, zabortegiaren ohiko jarduerak uneoro jarraitu behar duela kontuan izanik, erabiltzaileei begirako zerbitzuaren kalitatea eskastu gabe.

- La supervisión y dirección de la coordinación de las obras con la actividad que se lleva a cabo en el vertedero. A este respecto, y bajo las directrices de la Mancomunidad, será responsable de la correcta ejecución del Plan de Coordinación de ambas actividades durante cada fase de ejecución de las obras, bajo la premisa de que la actividad habitual del vertedero debe continuar en todo momento, sin mermar la calidad de servicio a los usuarios.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Obretan zehar eta horien berme-epean zehar egindako kontrolen azterketa egitea, hala kanpoko erakundeen bidez (UNE-EN-ISO/IEC 17025 arauaren arabera kreditutako laborategiak) nola II. mailako Ingurumen Kontrolerako Erakunde bidez, eta kontratistak IBB bateratuko baldintzak betetzen dituela egiaztatzea, bai obrak egikaritzeari dagokionean eta baita Ingurumen Baimen Bateratuan ezarritako emisioko balio-mugei dagokionean ere.

- Realizar el análisis de los controles llevados a cabo, durante las obras y el periodo de garantía de las mismas, tanto por entidades externas, laboratorios acreditados según norma UNE-EN-ISO/IEC 17025 como por ECAs de nivel II y verificar el cumplimiento por parte del contratista del condicionado de la AAI tanto en lo relativo a la ejecución de las obras como respecto a los valores límites de emisión establecidos en la autorización ambiental integrada.

- Ingurumen arloko arazoetan bereziki erreparatzea, eragindako hirugarrenen eskaerekin batera.

- Atender especialmente la problemática de carácter medioambiental conjuntamente con las demandas de terceros afectados.

- Kontratuaren arduradun modura, Obra Zuzendaritzaz arduratzen den pertsonak egikaritzeari dagozkion baldintza bereziak betetzen diren jakiteko jarraipena egingo du eta, kontratua egikaritzen den bitartean, edozein unetan, dagokion dokumentazioa edo kontratua betetzeko kontrola eta ebaluazioa egiteko bere eskumenak gauzatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentu jaso beharko du obretako kontratistaren eskutik. Horrez gain, jarraipena egiteko bilkurak edo ebaluaziorako aldizkako txostenak eskatu beharko ditu. Halaber, kontratuaren arduraduna den pertsonak obretako kontratuan aurreikusitako betebeharretan izan daitezkeen ez-betetzeen berri eman beharko dio kontratazio-organoari eta, hala badagokio, zehapenak ipintzeko edo kontratua eteteko prozedura abiatzea proposatuko du.

- Como responsable del contrato, la persona que ejerza la Dirección de Obra realizará el seguimiento del cumplimiento de las condiciones especiales de ejecución y deberá recabar de la contratista de las obras, en cualquier momento durante la ejecución del contrato, la documentación correspondiente o cualquier otra que estime pertinente para ejercer sus facultades de control y evaluación del cumplimiento del contrato, así como solicitar la celebración de reuniones de seguimiento o informes periódicos de evaluación. Asimismo, la persona responsable del contrato informará al órgano de contratación sobre los posibles incumplimientos de las obligaciones previstas en el contrato de obras y, en su caso, propondrá el inicio del procedimiento de imposición de penalidades o de resolución del contrato.

- Obrak amaitzean, kontratuaren arduraduna den pertsonak obrako kontratistaren aldetik egikaritzeari dagozkion baldintza bereziak eta kontratuaren arabera ezarritako beste edozein betebehar egiaz bete diren aztertzeko txosten bat eratuko du.

- Al finalizar las obras, la persona responsable del contrato elaborará un informe en el que se analice el efectivo cumplimiento de las condiciones especiales de ejecución por parte de la contratista de la obra y de cualquier otra obligación contractualmente impuesta.

Obren harrera eta likidazioa egiteko jarduerak:

Actividades a realizar para la recepción y liquidación de las obras:

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Obren harrera egitean asistentzia eskaini eta sinatzea, harreraren aurretiko txostena idaztea barne.

  Obrak jasotzeko moduko egoeran ez daudenean, aktan hala adieraziko da, eta horien zuzendariak hautemandako akatsak adieraziko ditu eta beharrezkoak diren argibideak emango ditu, akats horiek konpontzeko epe bat ipiniz. Epe hori igarota kontratistak ez balitu akatsak konpondu, luzaezina den beste epe bat eman ahal izango da edo kontratua eten daiteke.

- Obren azken ziurtagiria, dagokion txostenarekin, eratzea, beranduenez obren harrera egin eta hilabeteko epean, kontratazio organoak onar dezan Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 243.1 artikuluan ezarritako harrera egin eta hiru hilabeteko epean.

- IBB bateratuan zehazten denez, behin obrak amaituta, zigilatze-lanen zuzendariak berau IBB bateratuan eta haren euskarri den dokumentazio teknikoan horri dagokionez ezarritako baldintzen eta betekizunen arabera egin dela egiaztatu beharko du. Egiaztapenerako obra amaierako ziurtagiri bat igorriko da, obra zuzendariak sinatuta, dokumentazio hau atxikiz:

a) Dagokion “as built” Eraikuntza Proiektua, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, plano-sorta eta obra amaitzean ikusgai ez dauden elementuen eta horien ezaugarrien argazki-erreportaje bat gaineratuta, xehetasunezko bistak, plano gaineko kokapena adierazita, zein bista panoramiko orokorrak barne.

   i. Hala badagokio, obra egikaritzean egindako aldaketak, xehetasunez dokumentatuta egon beharko direnak,

- La asistencia y firma a la recepción de la obra, incluyéndose la redacción del informe previo a la recepción.

  Cuando las obras no se hallen en estado de ser recibidas se hará constar así en el acta y el director de las mismas señalará los defectos observados y detallará las instrucciones precisas fijando un plazo para remediar aquellos. Si transcurrido dicho plazo el contratista no lo hubiere efectuado, podrá concedérsele otro nuevo plazo improrrogable o declarar resuelto el contrato.

- Elaboración de la certificación final de las obras con su informe correspondiente en el plazo máximo de un mes a partir de la recepción de las obras, a fin de que sea aprobada por el órgano de contratación dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción establecido en el art.243.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

- Tal y como se define en la AAI, una vez finalizadas las obras el director de las obras de sellado deberá acreditar que la misma ha sido realizada ajustándose a las condiciones y requisitos establecidos al respecto en la AAI y en la documentación técnica que sirve de fundamento a la misma. La acreditación se realizará mediante la expedición de un certificado de fin de obra suscrito por el director de obra, adjuntando la siguiente documentación:

a) El correspondiente Proyecto Constructivo “as built”, visado por el correspondiente colegio oficial profesional, con su juego de planos así como un reportaje fotográfico de aquellos elementos y sus características que no sean visibles al finalizar la obra, incluyendo tanto vistas de detalle, con indicación de su ubicación sobra plano, como vistas panorámicas generales.

   i. Las modificaciones que, en su caso, hayan sido introducidas durante la ejecución de la obra, las cuales deben

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

IBB bateratuan eta haren euskarri den dokumentazioan ezarritako baldintza eta betekizunei dagokionez segurtasuna edo ingurumen-babesa eskastea ez dakartela justifikatuz (hala badagokio, justifikazio-kalkuluekin).

estar documentadas detalladamente, aportando justificación (en su caso cálculos justificativos) de que no suponen una reducción de la seguridad o protección ambiental respecto a las condiciones y requisitos establecidos en la AAI y en la documentación que sirve de fundamento a la misma,

ii. Obren garapenean zehar sortutako gorabeherak.

ii. Las eventualidades surgidas durante el desarrollo de las obras.

b) Plano topografiko bat, UTM-ETRS89 koordenatuetan eta kuota absolutuekin, zigilatuaren sekuentziako landare-lur geruzaren gainazalarena.

b) Un plano topográfico, en coordenadas UTM-ETRS89 y cotas absolutas, de la superficie superior de la capa de tierra vegetal de la secuencia de sellado.

c) Eraikuntza Kalitatearen Kontrol eta Bermearen Programaren emaitzak, egindako lanak deskribatzeko memoria bat barne hartuko duena, erantzun eta ondorioak laburbiltzeko taulekin, eta landa eta laborategiko azterketen emaitza guztiak (azken horienei dagokienez txosten osoak jasoko dira) eta plano takimetriko gainean laginketa-puntuen kokapena jasoko dituzten zenbait eranskin.

c) Los resultados del Programa de Control y Garantía de la Calidad Constructiva que incluirá una memoria que describa los trabajos realizados, con tablas resumen de los resultados y conclusiones, así como unos anexos que recojan todos los resultados analíticos de campo y laboratorio (de estos últimos se incluirán informes completos) y la localización de los puntos de muestreo sobre plano taquimétrico.

- Aurreko atalean adierazten den obra amaierako ziurtagiria eta hari atxikitako dokumentazioa Ingurumen Organoaren aurrean aurkeztu beharko da, hark onespena eman dezan. Behin aurkeztutako dokumentazioa egokia dela ikusi eta egiaztapenerako dagokion bisita egin ondotik, Ingurumen Organoak zigilatze-lanen egikaritzearen amaiera onartu eta itxiera osteari hasiera emango dio. Esleipendunak Mankomunitatea lagunduko du fase horretan ere.

- El certificado fin de obra señalado en el apartado anterior así como la documentación que lo acompaña deberá presentarse ante el Órgano Ambiental para su aprobación. Una vez constatada la adecuación de la documentación presentada y girada la oportuna visita de comprobación, el Órgano Ambiental aprobará la finalización de la ejecución del sellado y el inicio de la post-clausura. El adjudicatario asistirá a la Mancomunidad también en esta fase.

- Zigilatutako zabortegia Mantentzeko Plan bat idaztea eraikitako lanak mantendu nahiz haien mantentzeari so garrantzitsuak izan daitezkeen alderdi jakinak behar bezala ustiatzeko.

- Redactar un Plan de Mantenimiento para la conservación y correcta explotación de las obras construidas así como los aspectos particulares que pudieran tener trascendencia para la conservación de las mismas.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- **Berme-epea amaitu aurretik:**

  - Obraren egoera orokorrari buruzko txosten bat eratzea bermea amaitu aurretik, dagozkion abalak hartu eta itzuli aurretik konpondu beharreko alderdiak adierazita.

    Berme-epea bete baino hamabost egun lehenago, obrako Zuzendaritza fakultatiboak obren egoerari buruzko txostena idatziko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta. Txostena aldekoa balitz, kontratista erantzukizun guztietatik libre gelditukoda –9/2017 legearen 244. artikuluan ezkutuko akatsengatik jasotzen den erantzukizuna izan ezik–, eta bermea itzuli edo kitatu beharko da, kontratua likidatu eta, egiteko ordainketarik baldin badago, ordaindu, hirurogei eguneko epean.

    Txostena aldekoa izango ez balitz eta antzemandako akatsak obrak egikaritzean izandako hutsuneen ondorio balira eta ez eraikitakoaren erabilerarenak, berme-epearen barruan Zuzendaritza fakultatiboak beharrezkoak diren aginduak emango dizkio kontratistari eraikitakoa behar bezala konpon dezan eta horretarako epe bat emango dio eta epe horretan zehar kontratista arduratuko da obren zaintzaz eta ez du inolako ordainik jasoko berme-epea luzatzeagatik.

  - Lanen esleipenduna, HAKLAO legearen 173. artikuluan aurreikusten dena betez, obren harrerarako aktarekin batera, horien dimentsio eta ezaugarrien egoera zein den azalduko du, burututako lanak xehetasunez zehaztuta, harreraren unean dauden moduan. Dokumentu horretan inguruabar orokorrak ahalik eta modu zehatzenean adieraziko dira obrak Mankomunitatearen Ondareen Inbentario Orokorrera gaineratze

- **Antes de la finalización del período de garantía:**

  - Elaboración de un informe del estado general de la obra con anterioridad al vencimiento de la garantía, con indicación de aquellos aspectos que deban ser subsanados previamente a la recepción y devolución de los avales correspondientes.

    Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, la Dirección facultativa de la obra, de oficio o a instancia del contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras. Si éste fuera favorable, el contratista quedará relevado de toda responsabilidad, salvo la responsabilidad por vicios ocultos contemplada en el artículo 244 de la Ley 9/2017 procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato y, en su caso, al pago de las obligaciones pendientes que deberá efectuarse en el plazo de sesenta días.

    En el caso de que el informe no fuera favorable y los defectos observados se debiesen a deficiencias en la ejecución de la obra y no al uso de lo construido, durante el plazo de garantía, la Dirección facultativa procederá a dictar las oportunas instrucciones al contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargado de la conservación de las obras, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía

  - El adjudicatario de los trabajos, en cumplimiento de lo previsto en el art. 173 del RGLCAP, acompañará al acta de recepción de las obras, un estado de dimensiones y características de las mismas donde se definan con detalle las obras realizadas tal y como se encuentran en el momento de su recepción. Dicho documento contendrá la indicación lo más exacta posible de sus características generales a efectos de la incorporación

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

aldera, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzeko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan ezartzen denari jarraikiz.

de las obras al Inventario General de Bienes de la Mancomunidad según establece el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Enpresa esleipendunak beharrezkoak diren dokumentu tekniko eta administratibo guztiak prestatuko ditu, eta obrak modu eraginkorrean egiteko ezinbestekoak diren legeztapen, baimen eta lizentziak eskuratzeko beharrezkoak diren jarduketa tekniko eta profesionalak egingo ditu.

La empresa adjudicataria elaborará todos los documentos técnicos y administrativos necesarios, y desempeñará las actuaciones técnico-profesionales necesarias para la obtención de las legalizaciones, autorizaciones y licencias precisas que permitan la efectiva realización de las obras.

Hala eskatzen duten dokumentu guztiak dagokion Elkargo Profesionalaren ikus-onespen egokiarekin aurkeztu beharko dira. Ikus-onespen horren gastuak, edozein kasutan, esleipendunaren kontura izango dira.

Todos aquellos documentos que lo requieran deberán presentarse debidamente visados por el Colegio Profesional correspondiente, estando los gastos de visado en todo caso a cargo del adjudicatario.

Enpresa esleipendunak kontratuaren xedearekin lotuta dauden eta haren ondorioz ezagutu dituen datu eta aurrekariak isilean gorde beharko ditu, publiko edo nabariak ez badira. Horrenbestez, ezingo die hirugarrenei kontratuaren xede den gaiari buruzko informaziorik helarazi, eta obrarako sarbiderik ere ez die baimenduko helburu horrekin, ondorio horietarako aldez aurretik Administrazioaren baimena izan ezean.

La empresa adjudicataria está obligada a guardar sigilo respecto a los datos y antecedentes que, no siendo públicos o notorios, estén relacionados con el objeto del contrato, de los que tenga conocimiento con ocasión del mismo, no pudiendo, por tanto, proporcionar información a terceros sobre la materia objeto del contrato, ni permitir el acceso a la obra con dicha finalidad, a no ser que cuente con estos efectos con la previa autorización de la Administración.

2.3.2. Laguntza Teknikoa. Kalitate Orokorraren Kontrola

2.3.2. Asistencia Técnica. Control de la Calidad General

Asistentzia, Obra Zuzendaritzari berez dagozkion lanketez gain, obraren egikaritzearen Kalitatea Kontrolatzeaz arduratuko da esparru horrek hartzen dituen alderdi guztietan. Horiek, modu ez hedagarrian, jarraian zehazten dira:

La Asistencia, además de las tareas propias de la Dirección de Obra, se hará cargo del Control de Calidad de la ejecución de la obra en todas las vertientes que abarca este campo. Éstas, de manera no extensiva, se detallan a continuación:

2.3.2.1. Kalitate Kontrol Sistematikoa.

2.3.2.1. Control de Calidad Sistemático.

Materialen harrerari dagokion dokumentazio tekniko eta administratiboaren jarraipena egin, berau onartu eta jasotzea eta Eraikuntza Proiektuko Baldintza Teknikoen Pleguarekin bat etorriz aplikagarri diren eta, horrenbestez obrari egoztekoak diren, bertatik bertarako entseguak eta laborategiko entseguak sartzen dira.

Comprende el seguimiento, aceptación y recopilación de la documentación técnica y administrativa relativa a la recepción de materiales y los ensayos “in situ” y de laboratorio que sean de aplicación de acuerdo con el Pliego de Prescripciones Técnicas del

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

proyecto constructivo, y por tanto imputables a la obra.

Atal honen barnean materialak mailegatzeari, estankotasunari, hormigoiari, altzairuari, mekanismoari, hoditeriari edota betegarrien trinkotzeari dagozkion kontrolak egitea aurreikusten da.

Dentro de este apartado se prevé la realización de controles sobre los préstamos de material, estanqueidad, hormigón, acero, mecanismo, tubería, compactación de rellenos, etc.

Egikaritzearen kontrolean, kasu orokorrenean, eragiketa hauek sartuko dira:

El control de la ejecución comprenderá, en el caso más general, las operaciones siguientes:

- Kontratistaren aldetik obrako materialen eta unitateen gaineko laginketak hartzea antolatzea, Obra zuzendaritzak gainbegiratuta, material edo unitate bakoitzerako sistematika normalizatu baten arabera, haiek garrantzi eta kopuruari so komeni den eran zehaztuz, behar bezain ordezkagarri izan daitezen. Hala dagokionean, Kontratistaren aldetik bertatik bertarako entseguak egitea.

- Organización, bajo la supervisión de la Dirección de obra, de la toma de muestras de materiales y unidades de obra por parte de la Contratista, según una sistemática normalizada para cada material o unidad, definiéndolas convenientemente en entidad y número, para que sean suficientemente representativas. Ejecución por parte de la Contratista de ensayos in situ cuando proceda.

- Obra Zuzendaritzak horrela erabakitzen duenean laginak materialen jatorrizko lekuan hartuko dira, baita prestatutako edo aurrefabrikatutako produktuen kasuan ere.

- La toma de muestras deberá hacerse cuando así o determine la Dirección de Obra en los lugares de origen de los materiales, incluso en el caso de productos elaborados o prefabricados.

- Kontratistak laginak identifikatu, gorde eta mantentzen dituela gainbegiratzea.

- Supervisión de la identificación, custodia y conservación de las muestras por parte de la Contratista.

- Laginak laborategira baldintza egokitan igorri eta garraiatzen direla gainbegiratzea.

- Supervisión del envío y transporte al laboratorio de las muestras en condiciones adecuadas.

- Entseguak kualifikatutako langileek egiten dituztela gainbegiratzea, entseguaren alderdi guztiak betetzen direla egiaztatuz eta hori guztiori dagozkion inprimakitan idatzita.

- Supervisión de la realización de los ensayos por personal cualificado, con redacción y cumplimiento de todos los partes de ensayo en sus impresos correspondientes.

- Amaitutako obra-unitate sorta edo multzoak eta dagoeneko fabrikatutako material edo elementuak gerora kontrolatzeko proba edo entsegu bereziak, ohikoen osagarri, egiten direla gainbegiratzea.

- Supervisión de la realización de pruebas o ensayos especiales, complementarios de los rutinarios de fabricación para el control a posteriori de lotes o conjuntos de unidades de obras terminados y de materiales o elementos ya fabricados.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Kontratistek obretara eramaten dituzten makineriak eta instalazioak ikuskatzea.

- Kasu bakoitzean kontrola egiteko erabakitako sistemaren arabera emaitzen estatistikak prestatzea.

- Unitateak egikaritzeko prozesuen gaineko kontrola lekuan bertan gainbegiratzea kontratuzko baldintzekin bat datozela ziurtatzeko.

- Ezkutuan geratu beharreko obrako zatiak gainbegiratzea, dagozkion planoak eginez, obren abonu eta likidazio gisa baliagarri izan daitezen. Esleipendunak Kontratistaren adostasuna eskatuko du kasu horietan, obrak ezkutuan geratu aurretik.

- Obretako geometria eta zuinketak egiaztatzen direla gainbegiratzea, horiek proiektuan adierazitakoarekin bat datozela kontrolatuz, aplikagarri diren gainerako zehaztapenak ere betez, eta onargarri diren tolerantzia geometrikoak errespetatuz.

- Inspección de la maquinaria e instalaciones que los Contratistas aporten a las obras.

- Elaboración estadística de resultados según la sistemática de control determinada en cada caso.

- Supervisión del control de los procesos de ejecución de las unidades in situ para asegurar que se ajustan a las condiciones contractuales.

- Supervisión de las partes de la obra que hayan de quedar ocultas, formulando los oportunos planos, a fin de que sirvan de abono y liquidación de las obras. La Adjudicataria solicitará el conforme de la Contratista en estos casos, previamente a que las obras queden ocultas.

- Supervisión de la comprobación de la geometría y replanteos de las obras, controlando que las mismas se ajusten a lo proyectado, cumpliendo también con el resto de especificaciones aplicables, y que se respeten las tolerancias geométricas admisibles.

Administrazioak / Jabetzak betebehar modura ezar dezake Esleipendunaren taldeko kide jakin batzuk egunero abian diren zenbait lan bisitatzekoa, garrantzitsuenak, eta bisita horien parte bat bete dezatela aurretiaz ezartzen diren datuekin.

La Administración / Propiedad podrá fijar la obligatoriedad de que determinados miembros del equipo de la Adjudicataria visiten diariamente ciertos tajos en marcha, los más importantes, y que elaboren un parte de dichas visitas con los datos que se establezcan previamente.

2.3.2.2. Ekipamendu Mekaniko, Elektriko eta Automatismokoen Kalitatea Kontrolatzea

2.3.2.2. Control de Calidad de Equipos Mecánicos, Eléctricos y de Automatismo

Kontrol-lan horiek gaian adituak diren langileek egin beharko dituzte. Langile horiek, instalazioari heldu aurretik, proiektura egokitzen diren egiaztatzeaz, obraren testuinguruan eskuratzeko ekipamenduen kalitatea eta funtzionamendu egokia den egiaztatu beharko dute fabrikan beharrezkoak diren probak eginez.

Estos trabajos de control deberán ser realizados por personal especialista en la materia, quien comprobará previamente a su instalación, la adecuación al proyecto, la calidad y el correcto funcionamiento de los equipos a adquirir en el contexto de la obra mediante las pruebas en fábrica que resulten necesarias.

Jarduera honi berez dagozkion lanketen artean hauek nabarmendu behar dira:

Entre las tareas propias de esta actividad cabe destacar:

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Fabrikatzaileen plano eta fitxak hartzea
- Eskatzen diren kalitate eta ezaugarri teknikoak betetzen diren egiaztatzea
- Aurrezarritako entseguak koordinatu eta gainbegiratzea
- Kalitatearen harrera eta erregistroa egitea

- Recepción de los planos y fichas de los fabricantes
- Comprobación del cumplimiento de las calidades y características técnicas exigidas
- Coordinación y supervisión de los ensayos prescritos
- Recepción y registro de calidad

2.3.2.3. Topografia-kontrola

Topografia-kontrolak obrako fase ezberdinak estaltzen dituzten zenbait lanketa barne hartzen ditu:

- Esleipendunaren aldetik obren zuinketa zuzena dela egiaztatzea
- Ziurtagiriaren inguruko neurketak egiaztatzea
- Kotak eta maldak egiaztatzea
- Hasierako jasotzea eta *as built* jasotzea
- Zigilatuaren kotak jasotzea material geosintetikoen bidez

2.3.2.3. Control topográfico

El control topográfico comprende una serie de tareas que cubren diferentes fases de la obra:

- Verificación del correcto replanteo de las obras por parte de la Adjudicataria
- Verificación de mediciones de certificación
- Verificación de cotas y pendientes
- Levantamiento inicial y levantamiento *as built*
- Levantamiento de las cotas del sellado a base de materiales geosintéticos

2.3.3. Ingurumen Laguntza

Ingurumen arloan Esleipendunaren jarduketa sare hidrologikoaren, faunaren, begetazioaren, paisaiaren edota akuiferoaren kutsaduraren gaineko eraginak begiratzea izango da, dagokion obrako Ingurumenaren Zaintzarako Planean adierazten diren alderdi guztiak begiratzeaz batera, ingurumen arloan aplikagarri den araudi oro betetzen dela bermatuz.

Halaber, Laneko Programa eratzen kolaboratuko du, plangintza horri dagozkion ingurumen alderdien (*Laneko Programen Diseinua* izeneko *D.1.12* atalean zehazten direnak) gaineko informazioa emanez Obra Zuzendariak berariazko onarpena eman aurretik.

Ingurumen Asistentziak IBB bateratuko *Baldintza orokorra obrako fasean* izeneko *D.1.* atalean adierazitakoari dagokionez behar bezala jarduten dela begiratuko du, alderdi jakin batzuetan arreta

2.3.3. Asistencia Ambiental

La intervención de la Adjudicataria en materia ambiental consistirá en vigilar las afecciones sobre la red hidrológica, la fauna, la vegetación, el paisaje, la contaminación de acuíferos, y todos aquellos aspectos que así sean señalados en el correspondiente Plan de Vigilancia Ambiental de las obras, garantizando el cumplimiento de cuanta normativa en materia ambiental sea de aplicación.

Asimismo, colaborará en la elaboración del Programa de Trabajos, informando sobre los aspectos ambientales que atañen a dicha planificación que se especifican en el apartado *D.1.12. Diseño del Programa de Trabajos* con carácter previo a su aprobación expresa por el Director de Obra.

La Asistencia Ambiental cuidará el correcto proceder respecto a lo señalado en el apartado *D.1.Condiciones generales en fase de obras* de la AAI con especial atención a aspectos como

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

berezia jarriz, esate baterako, eragindako azalera eta ur bitartekoaren babesean, hondakinen kudeaketan (indusketako soberakinak barne), solido esekiak atxikitzeko gainean funtzionamenduan, hauts eta zararaten ekoizpenean eta *2015eko uztailaren 1eko Ebazpenean* adierazitako beste zenbait alderdi ere begiratuz.

superficie afectada y protección del medio acuático, gestión de residuos, incluyendo sobrantes de excavación, funcionamiento de los dispositivos de retención de sólidos en suspensión, producción de polvo y ruido, y otros aspectos señalados en la *Resolución de 1 de julio de 2015*.

Obrako lanketen garapena bateragarri izan beharko da zabortegiko Ingurumena Zaintzeko Programarekin; horretarako, Esleipendunak obretan zehar eta horien berme-epean zehar egindako kontrolen azterketa egin beharko du, hala kanpoko erakundeen bidez (UNE-EN-ISO/IEC 17025 arauaren arabera kreditutako laborategiak) nola II. mailako Ingurumen Kontrolerako Erakunde bidez, eta kontratistak IBB bateratuko baldintzak betetzen dituela egiaztatuko du, bai obrak egikaritzeari dagokionean eta baita Ingurumen Baimen Bateratuan ezarritako emisioko balio-mugei dagokionean ere, beharrezkoak diren neurriak proposatuz: prebentziozkoak, zuzentzaileak edo konpentsatzaileak.

El desarrollo de las tareas de obra habrá de ser compatible con el Programa de Vigilancia Ambiental del vertedero; para ello, la Adjudicataria realizará el análisis de los controles llevados a cabo, durante las obras y el periodo de garantía de las mismas, tanto por entidades externas, laboratorios acreditados según norma UNE-EN-ISO/IEC 17025 como por ECAs de nivel II y verificará el cumplimiento por parte del contratista del condicionado de la AAI tanto en lo relativo a la ejecución de las obras como respecto a los valores límites de emisión establecidos en la autorización ambiental integrada proponiendo las medidas que resulten necesarias: preventivas, correctivas o compensatorias.

Hondakinei dagokienean, Esleipendunak Hondakinak Kudeatzeko Plana eta indarreko arloko araudia betetzen direla ziurtatuko da, horrela:

1. Sortutako hondakinen tipologia eta kopurua egiaztatuz eta berau obran behar bezala bereizi eta sailkatuz. *(Hondakinei eta Ekonomia Zirkularrari buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 30. artikulua).*

2. Obran hondakinak bereizteko beharrezkoak diren bitartekoak daudela, nahiz horiek behar bezala erabili eta mantentzen direla egiaztatuz.

3. Onartutako Hondakinak Kudeatzeko Planean hondakinen prebentzio edo minimizaziorako ezarritako neurriak betetzen direla begiratuz eta obran hondakinak murrizteko helburu nagusia lortzera bideratutako neurri osagarriak proposatuz.

En materia de residuos, la Adjudicataria velará por el cumplimiento del Plan de Gestión de Residuos y de la normativa sectorial en vigor del siguiente modo:

1. Verificando la tipología y cuantía de los residuos generados y su debida separación y clasificación en obra. *(art. 30 Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular).*

2. Comprobando la disponibilidad en obra de los medios de separación de residuos necesarios, así como su correcto uso y mantenimiento.

3. Vigilando el cumplimiento de las medidas de prevención y minimización de residuos establecidas en el Plan de Gestión de Residuos aprobado y proponiendo medidas complementarias encaminadas a conseguir el objetivo general de reducción de los residuos en obra.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Obrako hondakinak berrerabili eta balioztatzeko neurriak betetzen direla, nahi obran hondakinen kudeaketaren hierarkia errespetatzen dela begiratuz.

5. Hondakinen azken helmuga aztertuz tratamendurako kontratuen eta identifikaziorako agirien bidez eta hondakinen hartzaile diren kudeatzaileen jardunaren legezkotasuna egiaztatuz.

6. Hondakinen kudeaketako kostu errealari buruzko zerrenda balioetsia proposatuz Obra Zuzendaritzak ziurtatze aldera.

7. Behin obrak amaituta Hondakinen Kudeaketaren Azken Txostena idatziz *Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretu*arekin bat etorriz, Kontratistaren aldetik dokumentu hori eratzea ahalbidetzen duen dokumentazioa jasoz.

4. Velando por el cumplimiento de las medidas de reutilización y valorización de los residuos de obra, así como por el respeto de la jerarquía de gestión de los residuos en obra.

5. Chequeando el destino final de los residuos a través de los contratos de tratamiento y los documentos de identificación y verificando la legalidad de la actividad de los gestores destinatarios de los residuos.

6. Proponiendo la relación valorada relativa al coste real de gestión de residuos para su certificación por la Dirección de Obra.

7. Redactando el Informe Final de Gestión de Residuos una vez finalizadas las obras acorde al *Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición*, recabando de la Contratista la documentación que permita la confección de dicho documento.

Halaber, induskatutako materialen balantzeari buruzko txosten bat helaraziko du IBB bateratuko *Obra amaierako txostena* izeneko *D.1.14* atalean ezartzen den moduan.

Asimismo aportará un Informe sobre el balance de materiales excavados como establece la AAI en su apartado *D.1.14. Informe fin de obra*.

Behin obrak amaituta, Ingurumen Asistentziak Azken Txosten bat idatziko du, Ingurumen Organoari igorri beharko zaiona. Hor babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak eta Ingurumen Organoak indusketako materialak behar bezala kudeatzeko eskatutako neurriak zein heinetan bete diren zehaztuko da. Horrekin batera Ingurumena Zaintzeko Programaren emaitzak jasotzen dituen txosten bat igorri beharko da, *Obra amaierako txostena* izeneko *D.1.14* atalean zehazten den eran.

Una vez finalizadas las obras, la Asistencia Ambiental redactará un Informe Final que habrá de ser remitido al Órgano Ambiental en el que se detalle el nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras así como de las medidas requeridas por el Órgano Ambiental para la correcta gestión de los materiales de excavación, así como un Informe con los resultados del Programa de Vigilancia Ambiental tal y como se especifica en el apartado *D.1.14. Informe fin de obra*.

Aurrekoarekin batera, Esleipendunak lurzoruen ikerketa eta berreskurapenean 199/2006 Dekretuaren arabera kreditutako erakunde modura jardungo du, *Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean* zehaztutakoaren arabera, obraren egoera

Adicionalmente a todo lo anterior, la Adjudicataria actuará como entidad acreditada en investigación y recuperación de suelos de acuerdo al Decreto 199/2006, según lo definido en la *Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del*

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

dela medio horrela eskatzen denean, dagokion dokumentazioa idatziz eta aplikagarri diren prozedurak gidatuz.

suelo, en los casos en los que la situación de la obra así lo requiera, redactando la documentación pertinente y liderando los procedimientos que resultasen de aplicación.

2.3.4. Geosintetikoen Kalitate Bermearen Kontrola

Aurreko ataletan Kalitatearen Kontrolari buruz aipatutako zereginez gain, geosintetikoei dagokienez, obra behar bezala garatzeko funtsezko pieza direnak, Esleipendunak proiektuko materialen zehaztapen teknikoak betetzea eta horiek behar bezala instalatzea ziurtatuko da. Horretarako, Eraikuntza Proiektuari dagokion eranskinean jasotzen den Geosintetikoen Kalitatea Kontrolatzeko Plana izango du erabilgarri, kontratu honetako aurrekontu-partidarekin batera.

UNE-EN-ISO 17025 ziurtagiria duen kalitatearen kontrola egiteko Laborategi bat izendatu beharko du, geosintetikoen entsegu suntsikorretarako. Laborategia egindako entsegu suntsikorren ahozko emaitzak emateko gai izan beharko da horien harrera egin eta hurrengo 24 orduen barruan eta idatziz eman beharko ditu harrera egin eta hurrengo 48 orduen barruan.

Geosintetikoak instalatzeko Bermea Kontrolatzeko lanak metodologia-eskema honi jarraikiz garatuko dira:

1. Kalitate Bermearen Kontrolaren Plangintza. KKP planaren eraketa

2. Bilkura eta eraikuntza aurretiko akta. KKP planaren onarpena

3. Materialen horniduraren kontrola:
   3.1. Agirian kontrola: Material pilaketaren identifikazioa eta egiaztapena.
   3.2. Laginketa-plana eta laginak hartzea.
   3.3. Materialen adostasunaren gaineko ebaluazioa.

2.3.4. Control de Garantía de Calidad de los Geosintéticos

Además de las labores referidas en los apartados anteriores respecto al Control de Calidad, en lo concerniente a los geosintéticos, los cuales constituyen una pieza clave para el correcto desarrollo de la obra la Adjudicataria velará por el cumplimiento de las prescripciones técnicas de los materiales de proyecto, así como de su correcta instalación. Para ello, contará con el Plan de Control de Calidad de Geosintéticos contenido en el anexo correspondiente del proyecto constructivo, así como de la partida presupuestaria del presente contrato.

Deberá designar un Laboratorio de control de calidad con certificación UNE-EN-ISO 17025 para ensayos destructivos de los geosintéticos. El Laboratorio deberá ser capaz de proporcionar resultados verbales de los ensayos destructivos realizados dentro de las 24 horas siguientes a su recepción y por escrito a las 48 horas siguientes a su recepción.

Las labores de Control de Garantía de la instalación de geosintéticos se desarrollarán de acuerdo al siguiente esquema metodológico:

1. Planificación del Control de Garantía de Calidad. Elaboración del PCC

2. Reunión y Acta pre-constructiva. Aprobación del PCC

3. Control del suministro de materiales:
   3.1. Control documental: identificación y verificación del acopio de los materiales.
   3.2. Plan de muestreo y toma de muestras.
   3.3. Evaluación de la conformidad de los materiales.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

4. Geosintetikoak bermatzeko gainazalaren egiaztapena.

5. Instalazioaren bertatik bertarako kontrola:
   5.1. Hedatze, ainguratze eta instalatzearen kontrola.
   5.2. Soldaduren ebaluazioa.

6. Azken txostena eta ikuskapen-ziurtagiria.
   6.1. Obra amaierako txostena.
   6.2. Geosintetikoen Kalitate Bermearen Kontrolari dagokion Ziurtagiria.

4. Verificación de la superficie de apoyo de geosintéticos.

5. Control in situ de la instalación:
   5.1. Control de extendido, anclaje e instalación.
   5.2. Evaluación de las soldaduras.

6. Informe final y certificado de inspección.
   6.1. Informe de fin de obra.
   6.2. Certificado de Control de Garantía de Calidad de los geosintéticos.

Esleipendunak obrak egikaritzen diren bitartean betebehar hauek izango ditu gutxienez:

- Materialen harrera obran bertan. Obran jasotako materialen erreferentziak eta etiketa normalizatuak ipintzea Geotestilen eta geotestilekin zerikusia duten produktuen UNE-EN-ISO 10320 arauaren arabera. Lekuan bertan identifikatzea. Kalitate-kontrolari dagozkion ziurtagiriak biribilkiaren arabera geo-mintzetarako eta fabrikazio-lotearen arabera gainerako kasuetan.

- Materialen jatorrizko ziurtagirien onarpena. Geosintetikoen fabrikazioari dagokion bermearen eta kalitate-kontrolaren onarpena.

- Materialen pilaketaren kontrola obran bertan.

- Laginketa adostasun-testerako eta laborategian egiteko bestelako entseguetarako.

- Zigilatze-paketea osatzen duten material ezberdinen adostasun-frogen onarpena (hala entseguak nola laginketa-prozedurak), Material sintetikoen UNE 104.425 arauen gomendioei jarraikiz. Obran jartzea. Hondakinen zabortegiak PEAD xaflekin eta Hesi geosintetikoen UNE 13493 arauaren arabera iragazgaizteko sistemak. Horiek gordailutze-lanen eraikuntzan eta hondakin

Las obligaciones de la Adjudicataria durante la ejecución de las obras comprenden cuando menos:

- Recepción de los materiales en obra. Referencias y etiquetado normalizado del material recibido en obra según UNE-EN-ISO 10320. Geotextiles y productos relacionados con geotextiles. Identificación in situ. Certificados de control de calidad por rollo para geomembranas y para el resto por lote de fabricación.

- Aceptación de certificados de origen de materiales. Aprobación de la garantía y control de calidad de fabricación de geosintéticos.

- Control del acopio de los materiales en obra.

- Muestreo para test de conformidad y otros ensayos de laboratorio.

- Aprobación de pruebas de conformidad (tanto ensayos como procedimientos de muestreo) de los diferentes materiales que componen el paquete de sellado siguiendo las recomendaciones de las normas UNE 104.425 Materiales sintéticos. Puesta en obra. Sistemas de impermeabilización de vertederos de residuos con láminas de PEAD y UNE 13493 Barreras geosintéticas. Requisitos para su utilización en la

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

solidoen zabortegietan erabiltzeko betekizunak. Instalazioaren hasiera.

construcción de obras de almacenamiento y vertederos de residuos sólidos. Inicio de la instalación.

- Zigilatze-paketea osatzen duten material ezberdinen arteko zuzeneko mozketaren entseguen onarpena, DIN-EN-ISO 12957-1 arauaren arabera, dagoen kontaktu bakoitzerako.
- Aprobación de los ensayos de corte directo entre los diferentes materiales que componen el paquete de sellado según norma DIN-EN-ISO 12957-1 por cada contacto existente.
- Landa-entsegu eta –frogen kontrol eta onarpena.
- Control y aceptación de los ensayos y pruebas de campo.
- Material, kokapen-plano eta instalazio-metodologiaren onarpena.
- Aceptación de los materiales, planos de disposición y metodología de instalación.
- Geosintetikoen oinarrien gainazalaren onarpena. Zigilatze-lanak hasi aurretik geosintetikoak bermatzeko oinarria egiaztatu eta onartu behar da, ainguratze-zangen egikaritzearekin batera proiektuarekin bat etorriz. Oinarrizko gainazalaren onarpenerako ziurtagiriaren igorpena.
- Aceptación de la superficie de base de geosintéticos. Antes del inicio de las labores de sellado debe comprobarse y aceptarse la base de apoyo de geosintéticos así como la ejecución de las zanjas de anclaje conforme al proyecto. Emisión de certificado de aceptación de la superficie base.
- Geosintetikoen geruza bakoitzaren instalazioa gainbegiratzea. Instalazioaren ikusizko kontrola etengabe eta obren erritmora egokituta egin beharko da.
- Supervisión de la instalación de cada una de las capas de geosintéticos. Deberá realizarse el control visual de la instalación de manera continua y de forma adaptada al ritmo de las obras.
- Landa-entsegu suntsikor eta ez suntsikorrak egitea. Kontrola burutzeko beharrezkoak diren aparatuak obran egon beharko dira geosintetikoen instalazioaren kalitate-bermearen kontrolak irauten duen bitartean (iraupen horren % 100ean). Aipatu entseguak burutzea zein aparatuen erabilgarritasuna prezioan sartuta egongo dira, eta ezingo dira aparte fakturatu.
- Realización de los ensayos destructivos y no destructivos de campo. Los aparatos necesarios para la realización del control deberán estar en obra el 100% de la duración del control de garantía de calidad de la instalación de geosintéticos. Tanto la realización de los citados ensayos como la disponibilidad de los aparatos estará incluida en el precio, no pudiéndose facturar independientemente.
- Konponketak nola egiten diren eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak txertatzen diren gainbegiratzea.
- Supervisión de la ejecución de reparaciones e implantación de medidas correctoras en caso necesario.
- Zigilatze-geruza bakoitzaren onarpena modu independentean.
- Aceptación de cada una de las capas de sellado de forma independiente.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Geosintetikoen hurrenkera, norabidea eta haiek ipintzeko modua gainbegiratu eta onartzea.
- Material geosintetikoak estaltzeko geruzaren hedapena gainbegiratzea.
- Kritikotzat jotzen diren eragiketa eta eremuen inguruko argazkiak ateratzea egunero.
- Gorabeheren eta burututako jarduketen eguneroko parteen zein instalatutako material edota gauzatutako obrako unitate kopuruaren igorpena.
- Instalazioarekin lotutako bariante edota hobekuntzen proposamenak.

- Supervisar y aceptar el orden, el sentido, y el modo de colocación de los geosintéticos.
- Supervisión del extendido de la capa de cubrición sobre los materiales geosintéticos.
- Toma de fotografías diarias de las operaciones y áreas que se consideren críticas.
- Emisión de partes diarios de incidencias y actuaciones llevadas a cabo, así como la cantidad de materiales instalados y/o unidades de obra ejecutadas.
- Propuestas de variantes y/o mejoras de instalación.

Baldintza derrigorrezko eta ezinbestekoa da kalitate-bermearen kontrolaz arduratzen den erakundea zigilatzea osatzen duten material guztien instalaziorako behar den denbora osoan zehar (iraupenaren % 100) obran izatea.

Es condición necesaria e imprescindible que la entidad responsable del control de garantía de calidad esté presente en obra durante el 100% del tiempo en el que se lleve a cabo la instalación de todos los materiales que conforman la solución de sellado.

Obran jartzea bermatzeko azalera egiaztatzearekin hasten da, eta zigilatze-sekuentziaren kalitate-bermearen kontrola ez da amaitutzat emango aurreikusten den azken estaldura amaitu arte (lurrak, legarrak).

La puesta en obra se inicia con la verificación de la superficie de apoyo, y no se dará por concluido el control de garantía de calidad de la secuencia de sellado hasta que haya finalizado la cubrición final prevista (tierras, gravas).

Obrak amaitu aurretik, kalitatearen ikuskapena ziurtatu ahal izango da, soilik kontrola egiteaz arduratzen den erakundeak egiaztatzen badu geosintetikoen paketeak obra amaitu arte gainerako jardueretan zehar zigilatze-sekuentzian kalteak ez direla sorraraziko bermatzeko besteko estaldura duela.

Con carácter previo a la finalización de las obras, únicamente podría certificarse la inspección de calidad si la entidad de control verifica que el paquete de geosintéticos dispone de una cubrición con competencia suficiente para garantizar que no se vayan a producir daños en la secuencia de sellado durante el resto de las actividades hasta la finalización de la obra.

Aurrez deskribatutako lanaren ondorioz, honako hauek izango dira Kalitate Kontrol horren ondoriozko dokumentuak:

1. Eraikuntzaren aurretiko akta
2. Komunikazio-aktak
3. Horniduraren Adostasunaren Txostena

Como resultado del trabajo anteriormente descrito, los documentos fruto de este Control de Calidad serán los siguientes:

1. Acta Preconstructiva
2. Actas de Comunicación
3. Informe de Conformidad de Suministro

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

4. Instalazioko Aktak eta Txostena
5. Kalitatea Bermatzeko Kontrolaren Azken Txostena
6. Zigilatzearen Kalitatea Bermatzeko Kontrolaren Ziurtagiria

4. Actas e Informe de Instalación
5. Informe Final de Control de Garantía de Calidad
6. Certificado de Control de Garantía de Calidad del sellado

Egindako kalitate-kontrola txosten hauen bidez dokumentatuko da:

- Kontrolaren hasierako txostena.
- Adostasun-testari eta materialen baterako entseguei buruzko txostena (laborategian eta frogen eremuan).
- Instalazioaren azken txostena.

El control de calidad efectuado se documentará a través de los siguientes informes:

- Informe inicial de control.
- Informe relativo a los test de conformidad y ensayos del conjunto de materiales (laboratorio y campo de pruebas).
- Informe final de instalación.

Kontrolaren hasierako txostenak honako informazio hau jasoko du, kontratista orokorretik eta instalatzailetik eskuratua:

- Lehengaiari dagokionez:
  - Ekoizlearen datuak (izena, helbidea, etab.)
  - Lehengaiaren jatorria eta ekoizpen-data, lehengaiaren hornitzailearen Kalitate Kontrolaren Ziurtagiriaren kopiak barne.
  - Aparteko institutu kontrolatzaile batek lehengaien gainean egindako Kalitate Kontrolaren Ziurtagiriaren kopiak. Aparteko kontrolatzaile horrekin adostutako kontrolatuaren aurkezpena.
  - Erabilitako material ezberdinen (birjina edo birziklatua) portzentajeei buruzko adierazpena.

El Informe inicial de control contendrá la siguiente información obtenida del contratista general y del instalador:

- Con respecto a la materia prima:
  - Datos del productor (nombre, dirección, etc.)
  - Origen y fecha de producción de materia prima, incluyendo copias de certificado de Control de Calidad del suministrador de la materia prima.
  - Copias de certificado de control de calidad de la materia prima de un instituto controlador independiente. Presentación del contrato que se dispone con este controlador independiente.
  - Declaración sobre los porcentajes de los diferentes materiales utilizados (virgen o reciclado).

- Materialei dagokienez:
  - Ekoizlearen datuak (izena, helbidea, etab.)
  - Proiektuan eskatzen diren inguruabarrak betetzen direla bermatzeko fabrikatzaileak egindako entseguen ziurtagiriaren kopia.
  - Ezaugarritzat adierazten diren gutxieneko balioen eta balio ertainen baliozkotasuna bermatzeko fabrikatzailearen ziurtagiria.
  - Fabrikatzailearen Kalitate Kontrolaren Ziurtagiria, kontrolatutako parametroak, aplikatutako arauak eta kontrolaren maiztasuna adieraziz.

- Con respecto a los materiales:
  - Datos del productor (nombre, dirección, etc.)
  - Copia del certificado de ensayos del fabricante garantizando el cumplimiento de las características exigidas por el proyecto.
  - Certificación del fabricante garantizando la validez de los valores mínimos y medios indicados como característicos.
  - Certificado de control de calidad del fabricante indicando parámetros controlados, normas aplicadas y frecuencia de control.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Aparteko institutu kontrolatzaile batek material ezberdinen gainean egindako Kalitate Kontrolaren Ziurtagiriaren kopiak.
- Materiala birziklatua baldin bada, ekoizpen eguneko edo ekoizpen-loteko birziklatutako materialaren portzentajearen adierazpena.

- Materialen multzoari dagokionez:
  - Geosintetikoen hornitzaileak zigilatzea osatzen duten geruza ezberdinen arteko marruskadura-angelu ezberdinen zerrenda bat aurkeztu beharko du proiektuko baldintzetara egokituz (zuzeneko mozketaren entsegua), hots, dauden materialak, ekartzeko daudenak, etab.
  - Kalitate Kontrola egiteaz arduratzen den aparteko Erakundeak zigilatzea osatzen duten geosintetiko ezberdinen egonkortasuna aztertu beharko du hornitzaileak helarazitako informazioa baliatuz.

- Bitarteko tekniko eta materialei dagokienez:
  - Obran erabiltzeko entseguko makina eta tresnen kalibrazioari dagokion fitxa teknikoa eta ziurtagiriak (egiaztatze-kanaldun soldadura-makina, estrusio-soldadurako makina, landako tentsiometroa, mikrometroa, manometroak, termohigrometroa, etab.).
  - Estrusioetan erabiltzeko erretxina instalatzeko geo-mintzetako erretxinen mota berekoa dela adierazten duen ziurtagiria.

- Instalazioaren metodologia.

- Instalatzeko geosintetiko ezberdinetako panelak ipintzeko planoa, xehetasunak edota aldatzeko proposamenak barne.

- Obrako pana.

- Copias de certificado de Control de Calidad de los diferentes materiales de un instituto controlador independiente.
- Si el material es reciclado, declaración del porcentaje de material reciclado por día de producción o lote de producción.

- Con respecto al conjunto de los materiales:
  - El suministrador de los geosintéticos deberá presentar una relación de los diferentes ángulos de rozamiento entre las diferentes capas que componen el sellado adaptándose a las condiciones de proyecto (ensayo de corte directo), es decir materiales presentes, pendientes, etc.
  - La Entidad Independiente de Control de Calidad deberá estudiar la estabilidad de los diferentes geosintéticos que compongan el sellado utilizando la información proporcionada por el suministrador.

- Con respecto a los medios técnicos y materiales:
  - Ficha técnica y certificados de calibración de máquinas e instrumentos de ensayo (máquina de soldadura con canal de comprobación, máquina de soldadura de extrusión, tensiómetro de campo, micrómetro, manómetros, termohigrómetro, etc) a utilizar en obra.
  - Certificado de que la resina a utilizar en las extrusiones es del mismo tipo a la resina de las geomembranas a instalar.

- Metodología de instalación.

- Plano de disposición de paneles de los diferentes geosintéticos a instalar, incluyendo detalles, propuestas de modificación, etc.

- Planning de obra.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Jasotako informazioa proiektuan jasotzen denarekin erkatzea.

- Confrontación de la información recogida, con lo dispuesto en el proyecto.

Adostasun-testari eta material multzoaren entseguri buruzko txostenak informazio hau izango du:

El Informe relativo a los test de conformidad y ensayos del conjunto de materiales contendrá la siguiente información:

- Adostasun-testetako eta material multzoaren portaerari buruzko entseguetako (laborategian eta frogen eremuan) emaitzak, hautatutako materialen egiazko portaera zein den jakite aldera (horretarako, horiek obran jartzean erabiliko den metodologia bera erabiliz).

- Resultados de los test de conformidad y ensayos del comportamiento del conjunto de materiales (laboratorio y campo de pruebas), al efecto de conocer el comportamiento real de los materiales seleccionados (utilizando para ello la misma metodología que será empleada posteriormente en su puesta en obra.

- Ondorioak.

- Conclusiones.

Azkenik, azken txostena eta zigilatzearen kalitate-bermearen kontrolari dagokion ziurtagiria igorriko dira. Txostenean informazio hau jaso beharko da gutxienez:

Por último, se emitirá el informe final y certificado del control de garantía de calidad del sellado. El informe deberá incluir como mínimo la siguiente información:

- Proiektuan eta Kalitate Kontrolean nahasitako zatiak eta langileak.
- Kalitate Kontrolaren Xedea.
- Proiektuaren laburpen eta definizio orokorra.
- Kalitate Kontrola bermatzeko metodoak.

- Partes y personal involucrados en el Proyecto y en el Control de Calidad.
- Objeto del Control de Calidad.
- Resumen y definición general del proyecto.
- Métodos de garantía de Control de Calidad.

- Alde guztiek sinatu eta onartutako egiaztatze-ziurtagiriak.
- Entseguetako emaitzak, geosintetikoen kalitatea bermatzeko laborategiko proiektuaren buruak ziurtatu eta sinatuak.

- Certificados de comprobación firmados y aceptados por todas las partes.
- Resultados de ensayos certificados y firmados por el jefe de proyecto del laboratorio de garantía de calidad de geosintéticos.

- Geosintetikoen panelen azken kokapenaren planoa.
- Egikaritze partzialen ziurtagiriak eta egikaritzearen azken ziurtagiria, alde guztiek onartu eta sinatua.
- Instalazioan zehar izandako gorabeherak.
- Argazkiak, eranskinak, eguneroko datuen bilketa, laginketa, panelak identifikatzeko taulak, panelen eta biribilkien arteko erlazioa, entseguetako emaitzak, etab.

- Plano de disposición definitiva de paneles de geosintéticos.
- Certificados de ejecución parciales y certificado final de ejecución aceptado y firmado por todas las partes.
- Incidencias habidas durante la instalación.
- Fotografías, anexos, recolección de datos diarios, muestreo, tablas de identificación de paneles, relación entre paneles y rollos, resultados de ensayos, etc.

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

Hori guztiori txosten batean jaso beharko da, Ingurumen Organoari igorri beharko zaiona Obra Amaierako Txostenaren barruan, Ingurumen Baimen Bateratuko D.1.14 atalean zehazten denari jarraikiz. Helarazteko txosten horretan egindako zigilatze-lanen memoria bat, emaitza eta ondorioak laburtzeko taula bat, landa-eremuan zein laborategian egindako entseguei buruzko eranskinak eta laginketa-puntuak eta soldadurak non dauden adierazteko plano bat jasoko dira.

Todo ello habrá de ser reunido en un informe que habrá de ser remitido al Órgano Ambiental dentro del Informe Fin de Obra, según lo especificado en el apartado D.1.14 de la Autorización Ambiental Integrada. Este informe a entregar incluirá una memoria de los trabajos de sellado realizados, tablas resumen de los resultados y conclusiones , anexos relativos a los ensayos de campo y laboratorio así como localización en plano de los puntos de muestreo y de ubicación de soldaduras.

3 HOBEKUNTZAK

Lizitatutako kontratuaren prestazioa osatzen duten prestazio hauek kontratuaren xedea osatzen dutenen osagarri dira.

- Berme-aldia amaitutakoan, mugarriak irakurtzea.
- Zabortegi osoa osorik mantentzeko plan bat idaztea..

“2 dokumentuan” ez da jasoko automatikoki kuantifikatu daitezkeen kalitateari buruzko irizpideei buruzko dokumentazioa (hobekuntzak).

3 MEJORAS

Las siguientes prestaciones que perfeccionan la prestación del contrato licitado tienen carácter complementario de las que integran el objeto del mismo.

- Lectura de los hitos e inclinómetros una vez finalizado el periodo de garantía.
- Redacción de un plan de mantenimiento de la totalidad del vertedero en su integridad.
-

El “documento “2” no contendrá la documentación referida a los criterios relacionados con la calidad cuantificables de manera automática (mejoras).

4. ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA

Asistentziaren pertsona delegatua

Asistentziaren pertsona delegatutzat ulertzen da esleipendunak bere eskaintzan berariaz izendatutako eta Administrazio/Jabetzak onartutako pertsona. Pertsona horrek goi teknikari prestakuntza erkatua izan beharko du kontratuaren xede nagusian eta hauek betetzeko adina gaitasun izan beharko du:

- Asistentziaren ordezkaritza-lanak egitea bere jardun edo presentzia beharrezkoa denean, klausuletako pleguen arabera, eta baita kontratuzko betebeharrak betetzetik eratorritako beste egintza batzuetan egotea ere, betiere, zerbitzua behar bezala egikaritu eta garatze aldera.

4 RELACIÓN CON LA ADMINISTRACIÓN

Persona delegada de la asistencia

Se entiende por persona delegada de la asistencia la persona designada expresamente por la Adjudicataria en su oferta y aceptada por la Administración / Propiedad, que, con formación técnica superior y contrastada en la materia objeto principal del contrato, tenga capacidad suficiente para:

- Ostentar la representación de la Asistencia cuando sea necesaria su actuación o presencia, según los pliegos de cláusulas, así como en otros actos derivados del cumplimiento de las obligaciones contractuales, siempre en

ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5

- Obretako Zuzendaritza beregain hartzeko gaitasun tekniko eta konpetentzia aitortua izatea.
- Kontratuari berez dagozkion lanketen egikaritzea antolatzea eta jabetzak emandako argibideak interpretatu eta praktikan jartzea.
- Obrak egikaritzen diren bitartean sortzen diren arazoen ebazpenean jabetzarekin kolaboratzea.

orden a la ejecución y buena marcha del servicio.

- Tener capacidad técnica y competencia reconocida para ostentar la Dirección de las Obras.
- Organizar la ejecución de las tareas propias del contrato e interpretar y poner en práctica las indicaciones transmitidas por la propiedad.
- Colaborar con la propiedad en la resolución de los problemas que se plantean durante la ejecución de las obras.

Administrazioak eskatu ahal izango du Asistentziak beharrezkoak diren langile fakultatiboak izenda ditzala eta, era berean, Administrazioak Esleipendunari asistentziaren pertsona delegatu berri bat izendatzeko eskatu ahal izango dio, eta baita haren mendeko edozein fakultatibo aldatzeko ere, inguruabarrek hala justifikatzen dutenean.

La Administración podrá exigir que la Asistencia designe el personal facultativo necesario, y asimismo, la Administración podrá exigir a la Adjudicataria la designación de una nueva persona delegada de la asistencia así como la sustitución de cualquier facultativo que de él dependa, cuando las circunstancias así lo justifiquen.

Sin./Fir.: Elena Egurrola Albéniz
San Marko Mankomunitateko Ingurumen Teknikaria /
Técnica de Medio Ambiente de la Mancomunidad de San Marcos

EKS | CSV: ESKUea6a9a54-2307-4d52-9e58-26fd4ce1bcc5
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=29910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=29910

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025KONT0013-Txostena/Txostena (SAN MARKO,,MANKOMUNITATEA)

Digitalki sinatua:

sanmarkos Mankomunitatea

Elena Egurrola Albeniz
Ingurumen Teknikaria
Data: 2025/11/13 09:04:57